

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Ezagutza gizarteratzen • Compartiendo conocimiento

**GRADU AMAIERAKO LANA:
GIPUZKOAKO BIZTANLEEN HEZKUNTZA
FINANTZARIOAREN AZTERKETA**

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Gradua
Enpresa ikasketen Unibertsitate Eskola

Egilea:

JON GOYA

Zuzendaria:

ALAITZ MENDIZABAL

Urtea:

2019

AURKIBIDEA

Sarrera	5
1. Kapituluak: Hezkuntza Finantzarioa	6
1.1. Sarrera	6
1.2. Definizioa	7
1.3. Hezkuntza Finantzario ezaren arazoak	9
1.4. Hezkuntza Finantzarioaren aldeko arrazoiak	14
1.5. Hezkuntza Finantzarioari buruzko ikerketak	23
1.5.1. Marco Tombretta: Hezkuntza Finantzarioa eta Enpresa Egitura	
1.5.2. ING: Ohitura Finantzarioen nazioarteko inkesta	
1.5.3. OCDE: Ikasleen Ebaluaziorako Nazioarteko Programa (PISA)	
1.5.4. WORLD BANK eta STANDARD&POOR´S: Hezkuntza Finantzarioa munduan zehar	
1.6. Hezkuntza Finantzarioa gaur egun	38
2. Kapituluak: Gipuzkoako Hezkuntza Finantzarioaren ikerketa	43
2.1. Populazioa eta informazioa jasotzeko metodoa	43
3. Ondorioak	57
4. Bibliografia	59
4.1. Literatura	59
4.2. Web orrialdeak	60

IRUDIEN ZERRENDA

1. Irudia: Arrisku finantzarioaren Indikatzailea	8
2. Irudia: VozPópuli.com-en titularra	10
3. Irudia: El Mundo-ko titularra	13
4. Irudia: Noticias de Navarra-ko titularra	14
5. Irudia: El País-en titularra	17
6. Irudia: EFE-ko titularra	20
7. Irudia: Finantza alfabetatzea munduan	36
8. Irudia: "Plan de Educación Financiera 2008-2012": Faseak	40

GRAFIKOEN ZERRENDA

1. Grafikoa: Familien zorpetzea Espainian	10
2. Grafikoa: Lur klausulengatik itzuli beharreko dirua	12
3. Grafikoa: Komisioak kobratzen den kontzeptuaren arabera	12
4. Grafikoa: Jakintza finantzarioen inguruko galderen erantzunak	15
5. Grafikoa: Ekintzaile potentzialak Espainian (%)	16
6. Grafikoa: Espainiako aurrezki tasa	18
7. Grafikoa: Pentsio Planetan inbertsioa BPGarekiko	19
8. Grafikoa: Inkestaren erantzunak herrialdeka	29
9. Grafikoa: Laginaren autoebaluazioa herrialdeka	29
10. Grafikoa: Hezkuntza Finantzarioko emaitzak PISA 2012 azterketan	31
11. Grafikoa: Hezkuntza Finantzarioko emaitzak PISA 2015 azterketan	32
12. Grafikoa: PISA azterketaren emaitzak mailakatuta 2012	33
13. Grafikoa: PISA azterketaren emaitzak mailakatuta 2015	34
14. Grafikoa: Munduko Bankuaren azterketaren emaitzak	37
15. Grafikoa: Finantza alfabetatzea eta diru sarrerak	38

16. Grafikoa: Inkestaren erantzuleak adinaren arabera	45
17. Grafikoa: Inkestaren erantzuleak generoaren arabera	45
18. Grafikoa: Inkestaren erantzuleak hezkuntza mailaren arabera	46
19. Grafikoa: Interes tasa konposatuaren galderaren erantzunak	47
20. Grafikoa: Inflazioaren galderaren erantzunak	48
21. Grafikoa: Arriskuaren dibertsifikazioaren galderaren erantzunak	48
22. Grafikoa: Zorraren galderaren erantzunak	50
23. Grafikoa: Amortizazioaren galderaren erantzunak	51
24. Grafikoa: Hipoteken hileroko kuota eta interesen galderaren erantzunak	52
25. Grafikoa: Inkestako kalifikazio bakoitzeko erantzule kopurua	54

TAULEN ZERRENDA

1. Taula: Norberaren jakintza finantzarioen pertzepzioa	21
2. Taula: Espainiako Bankuak jasotako erreklamazioak	22
3. Taula: Hezkuntza Finantzario basikoa – Nazioarteko konparaketa	25
4. Taula: Hezkuntza Finantzario basikoa sexuaren arabera	26
5. Taula: Hezkuntza Finantzario basikoa hezkuntza mailaren arabera	26
6. Taula: Hezkuntza Finantzarioari buruzko 8 galderen erantzunak	27
7. Taula: Hezkuntza Finantzarioari buruzko 5 galderen erantzunak	28
8. Taula: PISA ikerketa – laburpena	35
9. Taula: “Plan de Educación Financiera 2008-2012”: Edukiak	40
10. Taula: Laginaren autoebaluazioa	46
11. Taula: Hezkuntza Finantzario basikoa	49
12. Taula: Hezkuntza Finantzario aurreratua	53
13. Taula: Inkestaren laburpena	55

ERANSKINAK

1. Eranskina: Marco Tombretta: Hezkuntza Finantzarioa eta Enpresa Egitura (2016)	64
a) “Hezkuntza Finantzarioa eta Enpresa Egitura” ikerketaren Laginaren informazioa	
b) “Hezkuntza Finantzarioa eta Enpresa Egitura” ikerketako galdera sorta	
2. Eranskina: ING: Ohitura Finantzarioen nazioarteko inkesta (2012)	67
a) “Ohitura Finantzarioen nazioarteko inkesta”-ko galdera sorta	
3. Eranskina: OCDE: Ikasleen Ebaluaziorako Nazioarteko Programa (PISA) (2012 eta 2015)	68
a) “Ikasleen Ebaluaziorako Nazioarteko Programa” azterketa eredua	
4. Eranskina: WORLD BANK eta STANDARD&POOR´S: Hezkuntza Finantzarioa munduan zehar (2014)	72
a) “Hezkuntza Finantzarioa munduan zehar” ikerketako galdera sorta	

Sarrera

Hurrengo orrietan aurkezten den Gradu Amaierako Lan (GRAL) honek helburu nagusi bat du: Hezkuntza Finantzarioaren inguruko egoera zein den ezagutzea eta Gipuzkoa mailan populazioak duen Hezkuntza Finantzarioaren analisia egitea.

Helburu nagusi honen ildotik, azken hilabete hauetan hainbat galdera azalerratu zaizkit eta denei ez bada, gehientsuenei behintzat argibidea bilatzen ahaleginduko naiz: zein Hezkuntza Finantzario jasotzen dugu? Gehiago behar al da? Zein ohitura finantzario ditu gizarteak? Inbertitzeko joera al du? Nola banatzen du familia bakoitzak ondarea? Ze irizpideren arabera? Nahikoa probetxu ateratzen al dio bere ondareari? e.a.

Erantzunak anitz izango dira, seguru. Ezjakintasuna medio, orokorrean, finantzarekin zerikusia duen elkarrizketa orok nagikeria dakarkio gizartearen gehiengoari. Zergatik ote?

Gaur egunean gehiengo baten ezjakintasunak beste batzuen aberastea eta ahalduntzea ekarri du. Krisialdian askotan entzuten da pobreak are eta pobreago direla, ahaldunak gero eta aberatsago diren heinean, eta zoritxarrez, egia da.

Gauzak honela, pil-pilean dagoen gai bat izanik, egokia iruditu zait honi buruz lanketa bat egitea.

Proiektu honetan erabiliko den metodologiarekin jarraiki, literaturaren (liburuak, artikulak, e.a.) errebasoa egiteaz gain, aurretik aipatutako Hezkuntza finantzarioaren azterketa egiteko ikerketa kuantitatiboa (inkestak bidez) egingo da. Honekin, Gipuzkoako populaziotik datu eguneratuak eduki nahi dira.

Lanaren egiturari dagokionez, bi zatitan banatu da. Lehenengo zatia, hau da, 1. kapituluak ondorengo egitura du: behin kontestuan ipini ondoren, Hezkuntza Finantzarioaren inguruan emandako definizio desberdinak aztertuko dira, kontzeptuaren ikuspuntu orokor bat emateko helburuarekin. Ondoren, alde batetik Hezkuntza Finantzarioa ez lantzearen ondorio eta arazoak landuko dira eta beste aldetik, orain arte egindako ikerketak eta gaur egungo egoera aztertuko dira. Bigarren zatian berriz, hau da, 2. kapitulan, Gipuzkoa mailan dagoen Hezkuntza Finantzarioa neurtuko da. Horretarako, biztanleriaren lagin bati inkesta bat egingo zaio eta galdeketa honek plazaratutako datuak aztertuko dira. Azkenik, lehenengo zatiaren eta bigarren zatiaren, hau da, lanaren ondorioekin bukatuko da.

1. KAPITULUA: Hezkuntza Finantzarioa

1.1. Sarrera

Gaur egun, pertsona bat jaiotzen den momentutik, hezkuntza bat jasotzen du. Alde batetik, ingurukoengandik eta gizarteak berak ematen digun hezkuntza dago. Bertan, gehienbat etorkizunean pertsona batek izango dituen balioak eta jarrerak barneratzen dira.

Bestalde, herrialde bakoitzeko marko legalean gehiegi sakondu gabe, Derrigorrezko Hezkuntza dugu. Bertan, instituzio batetan eta hezkuntza arloko profesionalengandik estrukturaturako hezkuntza bat jasotzen dugu.

Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan legeak markatzen ditu eman beharreko jakintzagaiak. Ondoren, Batxilergo batean, adibidez, irakasgai batzuk derrigorrezkoak dira eta beste batzuk hautazkoak.

Puntu honetara iritsita, hainbat galdera datozkit burura. Argi dago ingelesa edota matematika gure etorkizuneko egunerokoan erabili beharko ditugula. Horregatik, urteak eta urteak igarotzen ditugu materia hauek ikasten. Hala ere, badaude beste derrigorrezko irakasgai batzuk, bere erabilgarritasun urriagatik, eztabaida sortzen dutenak.

Nire helburua ez da erabilgarritasunaren eztabaida horretan sartzea, baina bai konparaketa bat egitea. Zergatik ez dago Hezkuntza Finantzarioa derrigorrezko irakasgaien artean? Garrantzia handiagoa al du Nietzscheren epistemologiak hipoteka bat nola eskatzen den jakiteak baino?

Hipotekak, pentsioak, soldadak... oro har, dirua, finantza. Ha-Joon Chang ekonomista ezagunak esandako "La economía es demasiado importante como para dejarla en manos de economistas" (Chang, 2014, or. 459) esaldiak perfektuki asebetetzen du lan honek transmititu nahi duen funtsa.

Gaur egungo gizarteak dituen ohitura finantzarioak aztertzea izango da proiektu honen helburuetako bat. Puntu honetatik abiatuta, gizabanakook finantzarekin dugun erlazioaren analisia egin eta ondorio batzuk ateratzea du jomuga.

Finantza arloak gaur egungo sistema kapitalista honetan hartu duen garrantzia geroz eta handiagoa dela jakinik, badirudi gizarteak ez diola hainbesteko garrantzirik ematen. Badirudi berdin zaigula zein bankutan dugun nomina, berdin zaigula zein komisiokobratzen dizkiguten edota berdin zaigula gure diruarekin zer egiten duten. Aurrean jarritako 20 orrialdeko kontratua sinatu eta aurrera.

Akaso zail egiten zaigu finantza arloko zenbait teknizismo ulertzea. Akaso horregatik portzentaje ikur bat ikustearekin bakarrik alferkeria azaleratzen zaigu. Akaso banka munduari ondo datorkio hala izatea. Akaso...

Agian inguru zingiratsu batean sartzea da, baina Derrigorrezko Hezkuntzak irauten duen 10 urteetan ez dut ekonomia irakasgaia jaso. Batxilergoan aukerazkoa da soilik. Behin datua emanik, norberak balora dezala irakaskuntzak ekonomiari ematen dion garrantzia, eta konpara dezala gaur egungo sisteman duen boterearekin.

Ez ahaztu Ha-Joon Changen (Chang, 2014, or. 459) esaldia, noski.

1.2. Hezkuntza finantzarioa: Definizioa

Aurrera jarraitu baino lehen, Hezkuntza Finantzarioa zer den definitu behar da, finantza arloari erlazionatutako irakasgaia baina haratago.

Europar Batzordeak, heziketa eremu batean, Hezkuntza Finantzarioa “zentsuzko erabaki finantzarioak hartzeko gai izatea ahalbidetzen duen ezaguera eta balioen irakaskuntza eta gizabanako batek etorkizunean oinarritzko erronka finantzarioei aurre egiteko prestatzea” (FIARE, *et al.*, 2017, or. 9) da.

Definizio hori aintzat hartuta, esan daiteke nahiko zabala dela. Izan ere, ez da definitzen zer den *erabaki finantzario* bat edota zer ulertzen da *etorkizuneko erronka finantzario* moduan eta norberak gure ikuspuntua izan genezake kontzeptu horiei buruz. Kontu korrante bat ireki, aurreztutako dirua non inbertitu... Erabaki anitz hartzen ditugu, baina denek ez dute Hezkuntza Finantzario maila berdina behar.

Askotan errepikatzen diren erronka finantzarioei aurre egiteko ez dugu jakituria maila altua behar, kontu korranteen kasuan, adibidez. Hala ere, kasu honetan aukera kostua kontutan hartu beharko litzateke, baina esan genezake kontzeptua honen esanahia ez dagoela oso zabalduta populazioan.

Ospea eta oniritzia duen beste instituzio batek, Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak, (OCDE, 2005, or. 13), Europar Batzordeak emandako definiziotik ez oso urrun, ondorengoa dio: “Kontzeptu eta produktu finantzario eta erabaki, arrisku eta aukera finantzarioen ulermenera eramaten duen prozesua da, honekin ongizatea hobetuz”.

Definizio honek aurrekoari bi kontzeptu gehitu dizkio: produktu finantzarioak eta arrisku finantzarioa, bien arteko lotura estua izanik. Produktu finantzario orok bere arrisku finantzarioa du.


Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak bultzatuta, 2015eko azaroak 5eko Estatuko Aldizkari Ofizialean, produktu finantzarioen sailkapen eta informazio betebeharren inguruko ECC/2316/2015 ordenantzaren 11.4 artikuluan, ondorengoa ezarri zuen:

“Entitateek ezinbestekoa izango dute (...) produktu finantzario bakoitzak duen arrisku finantzarioarekin inguruan informatzea. Arriskua grafikoki erakutsiko da zatiki bat erabiliz: zenbakitzailean produktu finantzario motaren arrisku mailaren dagokion zenbatekoa erakutsiko da, izendatzailean beti 6 zenbakia mantenduz (...) Indikatzaileak ondorengo legenda izango du: “Zenbaki hau produktuaren arriskuaren indikatzailea da, 1/6 arrisku gutxien eta 6/6 arrisku gehien esan nahi duelarik.”

Beste hitzetan esanda, lege honek, inbertsore batek produktu finantzario bat erosterako orduan, produktu horrek duen arrisku finantzarioa erakusten duen indikatzaile bateratu bat azaltzea behartzen die finantza entitateei.

Aipatutako indikatzaileak, produktu finantzarioak 1etik 6era sailkatzen ditu, arriskuaren arabera, 1 arriskurik baxuena eta 6 arriskurik altuena izanik.

1. Irudia: Arrisku finantzarioaren indikatzailea



Iturria: Gonzalez , 2016

Ondoren azaltzen diren produktuetan erakunde finantzarioak aipatutako indikatzailea erakustera behartuta daude:

- Baloreen Merkatuko Legeak 2.1 artikuluan jasotako instrumentu finantzarioak: sozietateen akzioak eta balore negoziagarri baliokideak, partizipazio hipotekarioak, titulizazio bonoak, partizipazioak eta inbertsio kolektiboko entitateen akzioak...
- Banka kontu eta deposituak.
- Bizitza aseguruak.
- Pentsio Planak

Normalean, arriskurik gabeko produktu finantzarioekin jarduten dugu. Hala ere, azken urte hauetan izan ditugu polemika sortu duten hainbat kasu, izan ere, arrisku finantzario handia zuten produktu finantzarioak arrisku txikikoak bezala saldu izan direlako, eta iruzur honek inbertsore txiki askok bere ondarea galtzea eragin duelako. Espainia mailan, kasu ospetsuena preferenteen kasua izan zen.

Horren adibide, "La gran estafa de las preferentes" (Missé, 2016, or. 1) argitalpenean ondorengo esaten da: "Liburu hau bezeroek jasotzen duten abusu, iruzur, desinformazio eta gehiegikerien aurkako liburua da (...) Esaterako, milioi bat pertsonak jasan behar izan duten "Lehentasunezko partizipazioak" izeneko produktu finantzario ezezagunen gehiegikeria. Kasu askotan, aurreztaileei iruzurra eginez, produktuaren arriskua ezkutatu zitzaizen eta ondorioz, galera ekonomiko handiak eraginez, baita osasun kalte konponezinak ere".

Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak esandakoaren harira, beste organismo batzuetara jotzen badugu, nolabaiteko antzekotasunak aurki ditzazkegu Hezkuntza Finantzarioa definitzerako garaian.

Amerikako Estatu Batuetako gobernuak 2016 urtean aurrera atera zuen *Promoting Financial Success in the United States: The National Strategy for Financial Literacy* (Financial Literacy and Educational Commission, 2016, or. 9) informean zehazten da Hezkuntza Finantzarioa "aukera eta erabaki finantzario egokiak hartzeko informazioa, ezaguera eta trebetasuna izatea dela".

Aurretik gertatu zaigun moduan, zaila da neurtzea zer den pertsona batek informazio, ezaguera eta trebetasun finantzarioa izatea. Hala ere, argi dago, nolabaiteko jakituria minimo bat izatez hitz egiten ari garela. Ezinezkoa da mundu zibilizatuko pertsona orok CFD bat zer den jakitea, ez dago beharrik ere, baina hipoteka bat kontratatzen duen pertsonak, gutxieneko ezagutza eduki beharko luke.

Egunero entzun eta irakurtzen dugu Arrisku Primari edota Euriborrari buruz, baina populazioaren gehiengoak ez daki zer diren.

Azkenik, eta Hezkuntza Finantzarioaren definizioarekin bukatzeko, Mexikoko gobernuak jasotako dokumentu batean (Gobierno de Mexico, d.g., or. 1), Erresuma

Batuko Zerbitzu Finantzarioen Aginteak kontzeptu berri bat gehitzen du definizioan: “Norberaren dirua kudeatu, finantzen jarraipena egin, etorkizuna planifikatu, produktu finantzarioak aukeratu eta gai finantzarioez informatuta egoteko ahalmena da”.

Orain arte aurreko definizioetan ez zen norberaren finantzen kudeaketaz ezer aipatzen eta garrantzia nahikoa du. Izan ere, gutako bakoitzaren interesen alde gehien egingo duena gu geu gara. Horregatik da hain garrantzizkoa Hezkuntza Finantzarioa. Beste moduan, gure ondarea kanpoko norbaitek kudeatzen badu, gure konfiantzako bankuak, nolabait esatearren, gure aurrezkiak bankuari gehien interesatzen zaizkion produktuetan izango ditugu.

1.3. Hezkuntza Finantzario ezaren arazoak

Teknologiaren aurrerapenek garatu duten mundu globalizatu honetan, ezin liteke ukatu sistema finantzarioa ekonomiaren muina dela. Edozein ekintza sistema finantzarioaren baitan dago, zuzenean ala zeharka. Arrazoi honegatik, ekonomia eta egitura finantzarioaren funtzionamenduaren ezagutza ezak ondorio latzak ekarri dizkigu. Urrutira joan gabe, 2008ko krisialdia. Ruben Gonzalez analistak esan zuen moduan, “krisiaren ezta adak agerian utzi zuen espainiar gizarteak edukazio finantzarioan zituen gabeziak”. (Gonzalez R. , 2017).


Gaur egun Kutxabank entitateko merkatu digitalean diharduen Xele Olaizolak hitzaldi bat eman zuen Euskal Herriko Unibertsitatean 2017. urtean. Bertan baieztatu zuen bankuak ez direla baliatzen bezeroen Hezkuntza Finantzario eskasez beraien produktu finantzarioak saltzeko eta banka munduari benetan interesatzen zaiona bezeroek jakitua finantzarioa izatea dela.

(Olit, 2014)an, banka sektoreak izandako gehiegizko jokaerak gizarteari eragin dizkion arazoak jasotzen dira:

- Familien eta enpresa txikien gainzorpetzea: Entitate finantzario baten zereginetako bat, mailegu hartzaileen arriskua ebaluatu eta kudeatzea eta maileguaren erabilpen zuhurra ziurtatzea da. Beraz, entitateak bere zeregin hau betetzen ez badu eta bezeroak Hezkuntza Finantzario urria badu, gainzorpetzea eman daiteke.

Bezero batek eduki dezakeen zorpetze maila gaintitzearen ondorioz, arrisku sistemikoa eman liteke. Honen harira, autore honek jasotzen duen bezala, 2006 urteaz geroztik, Espainiako Bankuak zein beste entitate gainbegiraleek, estatu mailako familien gainzorpetzeari buruz ohartarazi zien entitate finantzario nazionalai. Zentzu honetan, Espainiako Bankuak 2012an argitaratu zuen urteroko txostenean (Banco de España, 2012), argi eta garbi ikusten da 2000. urtetik 2008ra doan epealdian, zorpetzea nabarmen handitu zela:

1. Grafikoa: Familien zorpetzea Espainian



Iturria: Banco de España, 2012, or. 41

- **Etxegabetzeak:** Azken urte hauetan, egunkari eta albistegietan mintzagai izan ditugu etxegabetze kasuak. Agerian geratu dira krisialdiaren aurretik banka entitateek kreditua emateko zuten sistema defizitarioa zela (Olit, 2014). Autorearen esanetan, bankuen arduretako bat bezeroen behar eta gaitasunetara egokitzen den produktuak saltzea da, aurretik eroslearen Hezkuntza Finantzarioa kontutan hartu behar delarik.

Demagun, hipoteka bat kontratatzerako garaian, bankuak ez duela bezeroaren ezagupen finantzarioen balorazio bat egiten. Bestalde, izan liteke mailegu hartzaileak gutxieneko Hezkuntza Finantzariorik ez izatea. Kasu honetan, erosleak ezin du zuhurtziaz jakin sinatu duen klausuletako bat gehiegizkoa den edota ea hartzen ari den konpromezu guztiak betetzeko gai izango den.

Gauzak honela, milaka eta milaka familiek etxegabetzeak pairatu zituzten krisialdi hasi zen momentutik, 2. irudian agertzen den moduan.

2. Irudia: VozPópuli.com-en titularra

EL VALOR DE SER LIBRES Y FAMILIAS

vozpópuli > ECONOMÍA

Desahucios en España: Desde el inicio de la crisis más de 400.000 familias pierden una vivienda

Entre 2012 y 2015 se han llevado a cabo 177.900 "entregas de viviendas", según datos del Banco de España. Según los datos de la PAH, los cuatro años anteriores hubo otros 244.000 desalojos.

Iturria: Sarries, 2016

Etxegabetzeek estatu mailan hartu zuten pisua ikusita, 2012ko martxoan, errekurtsorik gabeko zordunak babesten zituen lege dekretua onartu zen. Honetaz gain, urtebete beranduago, maiatzak 14ko 1/2013 legea argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean. Bertan, aurrekoa sendotzeaz gain, zorraren berregituraketa eta alokairu sozialaz aipatzen direlarik.

- Produktu finantzario toxikoak eta familien aurrezkiaren galera: Arlo honetan, (Olit, 2014)an dio, produktu finantzario toxikoen salmentekin, errenta baxuko familien aurrezkiak ez direla auresuposatzen den mailan nabarmen kaltetuak izan¹. Errenta baxuko familiek produktu finantzario gutxi erosteko joera dutela eta, beraz, jasandako arriskua eta galera ere urria denaren ideian oinarritzen da. Hala ere, oinarritzat hartutako ikerketa, aktibo finantzarioek izandako beherakada eta jaitsiera hau gehien pairatu duten kolektiboek hitz egiten du, baina komeni da aipatzea Europa mailako ikerketa bat dela eta ez estatu mailakoa.


Espainia hartuko bagenu erreferentziatzat, ikuspuntua aldatu egingo litzateke. Espainiar familiek, aurrezten duten %80a higiezinetan inbertitzen dute (INVERCO, 2012) eta ezaugarri honek gainontzeko europarrengandik aldentzen gaitu. Izan ere, higiezinetan inbertitzeak produktu finantzario toxikoen arriskura gerturatzen gaitu.

Beste hitzetan esanda, logikaz, hipoteka bat eskatzera doan familia batek bankuek produktu finantzario toxikoak eskaintzeko arrisku handiagoa du hipoteka eskatzen ez duen familia europar batek baino. Horren zergatia hipoteka behar ez badu, bankura joan beharrik ere ez duelako da. Konplexutasunagatik ezagunak diren produktu finantzario toxikoen artean, hipoteka multidibisak edo SWAPak aurkitzen dira.

Mediatikoki, lur klausula izan da titular gehien bildu dituenena. "kaltetuak milaka zenbatzen dira (...) suminduta konprobatu behar izan zuten nola Euriborraren sekulako beherakadaren ostean, beraien hipotekak aldaezin jarraitzen zuten. Europar Batasuneko Justizia Tribunalak abusuzko klausulak adierazi zituen eta dagoeneko, banka sektoreak 2.200 milioi euro itzuli dizkie bezeroei" (Sanz, 2019, or. 1).

¹ Baieztapen hau egiteko, Luxenburgoko Banku Zentraleko eta politika eta eskubide sozialen Max-Planck institutuko Tabea Bucher-Koenen eta Michael Ziegelmeyer ekonomialariek 2013. urtean argitaratutako *Once burned, Twice Shy? Financial Literacy and Wealth Losses during the Financial Crisis* liburua hartzen du erreferentziatzat

2. Grafika: Lur klausulengatik itzuli beharreko dirua (Milioi eurotan)




Iturria: Martinez, 2016

- **Komisioak:** Entitate finantzarioek zerbitzu bat emateagatik kobratzen dizkiguten diru kantitateak dira, diru transferentzia bat egin edota kontu korrante bat mantentzeagatik, adibidez (Facua, d.g.).

Kobratzen dizkiguten komisioak altuak ala bajuak direnaren eztabaida subjektiboan sartu gabe, ordaindu behar ditugun komisio horiek legezkoak diren ala ez aztertu beharra dago.

Adibidez, banku batek kontu korrantearen edo kreditu txartelaren mantenuagatik komisioak kobra ditzake eta guztiz legezkoak dira. Komisio honen zenbatekoa entitate finantzarioaren baitan egongo da. Datu gisa, nabarmentzeko da, 2015 urtea erreferentziatzat hartuta, bankuek komisioetan kobratutakoaren %77,63a kontu eta txartelen mantenuagatik izan zela (Checa, 2015), ondorengo grafikoan ikusi daitekeen moduan:

3. Grafika: Komisioa, kobratzen den kontzeptuaren arabera



Iturria: Checa, 2015

Legezkoak diren komisioak alde batera utzi gabe, lan honen hasieran aipatzen den bezala, gizartearen sektore bati nolabaiteko nagikeria ematen dio finantzen inguruko edozein elkarrizketa, arazo edo albiste. Komisioek ere badute lotura honekin.

Telefonia edo energia enpresekin gertatzen zaigun moduan, behin entitate finantzario baten bezero garenean, nahiz eta asebetetze maila altua ez izan, zaila izaten da beste entitate batera aldatzea. Kasu horretan, salduta geratzen gara, nolabait esatearren, bankuak kobratzen dizkigun komisio guztiak onartzera.

Alferkeria edo Hezkuntza Finantzario ezagatik, ez diogu erreparatzen zer datorren bat gure beharrekin eta honek kalte ekonomikoak eragiten dizkigu, entitateek agian beste modu batera ekidin genitzakeen komisioak kobratzen jarraitzen dizkigute eta.

Gaur egun entitate finantzarioen diru-sartze nagusienetako bat bilakatu dira komisioak, 3. irudian ikusi daitekeen moduan. 2018. urtean BBVA, Santander, Caixabank, Bankia eta Banc Sabadell entitateek 21.347 milioi euro irabazi zituzten komisioetan, beraien langile guztien soldatak ordaintzeko haina (Economía Digital, 2019).

3. Irudia: El Mundoko titularra



Iturria: Martínez, 2019

Puntu honen hasieran legezko komisioak eta legezkoak ez diren komisioen artean bereizketa egin da. Izan ere, aipatutako komisioak legezkoak izanik, datozen urteetan gure artean jarraituko dutenaren itxura du, eta beraz, gure esku dagoen bakarra Hezkuntza Finantzarioa jasotzea da, gure baliabideak ahalik eta gehien optimizatzeko.

Hala ere, badaude zeinbait komisio, legezko markotik at daudenak. Kasu honetan Hezkuntza Finantzarioa garrantzizkoa da, ez gure baliabideak optimizatzeko, baizik eta orain aipatu behar diren komisioak kobratzea ekiditeko.

Norberarena ez den kontu batean dirua sartzea kontua kudeatzen duen banketxera joan ezkerro, ezin izango digute zerbitzu horrengatik komisiorik kobratu, eta hala egiten badute, legez kanpokoak izango da. Legeak dioena ondorengoa da: kontu korrante baten mantenuagatik ordaintzen den komisioak bulego bateko leihatilan dirua sartzearen zerbitzuak barneratzen ditu (Alvarez Ramos Abogados, d.g.).

Hala ere, garrantzizko ñabardura bat egin behar da. Espainiako Bankuak, aipatutako kasuan, ondorengoa arautzen du: diru-sartzearen kontzeptua erregistratu nahi badugu (adibidez, hartzaileak jakin dezan) bezeroari komisio bat kobratzea baimenduta dago, aurretik jakinarazita.

Beste hitzetan esanda, dirua soilik ingresatzeagatik ezin digute komisiorik kobratu, baina bai diru-sartze horren kontzeptua erregistratzeagatik. Hala ere, banketxean informatuak izan behar gara komisioa ez datorrela diru kantitate bat kontu batean ingresatzeagatik, kontzeptua idazteagatik baino.

Gauzak honela, eta espainiar estatuko entitate finantzario guztiak zaku berdinean sartu gabe, baieztatu daiteke badaudela hainbat banketxe, KUTXABANK adibidez, legez kanpoko komisio hau kobratu izan dutenak edo gaur egun kobratzen dutenak. Ondoren dugun irudian irakurri daitekeen moduan, epaile batek geratu behar izan du entitatea aipatutako komisioa kobratu ez dezan.

4. Irudia: Noticias de Navarra-ko titularra



noticias de Navarra introduc

INICIO OPINIÓN CULTURA Y OCIO POLÍTICA VECINOS SOCIEDAD OSASUNA REPORTAJES

Economía Deportes Mundo Especiales Servicios Suplementos Lo más... ClubNoticias

[Inicio >Economía](#)

Kutxabank no podrá cobrar comisión en ventanilla por ingresar efectivo en cuenta ajena

La sentencia considera que el banco ya cobra por el mantenimiento al titular de la cuenta corriente que recibe el dinero

Sábado, 17 de Noviembre de 2018 - Actualizado a las 06:02h

Iturria: Noticias de Navarra, 2018

Legez kanpo kobratzen den beste ohiko komisio bat hipoteka baten kontratazioarekin batera eman liteke. Banketxe batean hipoteka bat kontratatzean, hileroko kuoten karguak egiteko, ohikoa da entitate horretan bertan kontu korrante bat irekitzea behartuak izatea. Kontu korrante honengatik mantenu edota kudeaketa komisioa kobratzea ez da legezkoa (Facua Andalucía Consumidores en acción, 2013).

1.4. Hezkuntza Finantzarioaren aldeko arrazoiak

Aurreko atalean ikusi dugun moduan, sistema ekonomikoak egunerokoan duen pisua ikusita, gaur egun gutxieneko Hezkuntza Finantzario bat ez izateak arazo larriak ekar ditzake. Orain kontzeptua beste ikuspuntu batetik aztertuko dugu, izan ere, gizarteak Hezkuntza Finantzarioa izatearen alde positiboak aztertuko ditugu.

Krisialdi garaian, banka munduari egin zaion kritika handienetako bat bezeroekin izandako gehiegikeriak izan dira. 2012an, banka liskarren arloan diharduten 7 epaileek Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari informe bat igorri zioten bezeroen ezjakintasunagatik entitate finantzarioen abusuak salatzeke (La Sexta, 2012).


Hala ere, banka munduak honen inguruan zer esana ere izan du. Langile batzuei oso zail egiten zaie gaitasun finantzario urriak dituzten bezeroei aholku ematea (Schröder, 2016). Alde batetik, produktu finantzario desberdinen ezaugarri

basikoenak ere ulertzeko gai ez direlako eta beste aldetik, eta aurrekoaren ondorio, produktua ulertzeko gai ez den bezero batekin ezinezkoa delako saltzen ari zen produktuaren baldintzak negoziatzea.

Honetaz gain, gizarteak Hezkuntza Finantzarioa jasoko balu, ez lirateke hainbeste demanda judizial aurkeztuko entitate finantzarioen aurka, produktu bat kontratatu aurretik bezeroak benetan kontratatzen ari dena ulertuko bailukeelako.

Schröderrek aipatzen dituen gaitasun finantzario urriak dituzten bezeroen froga gisa dugu azpiko grafika. Bertan, populazio lagin batek finantza alorreko kontzeptu basikoen inguruko galderak zuzen, oker ala ez dakien erakusten da.

4. Grafikoa: Jakintza finantzarioen inguruko galderen erantzunak



Iturria: CNMV *et al*, 2018, or. 32

Gaur egun pil-pilean dagoen beste gaietako bat ekintzailtza da. Silicon Valley delakoarekin konparaketarik egin gabe, gurean hainbat programa edo proiektu ditu abian Eusko Jaurlaritzak, SPRI enpresa garapen agentzia, esaterako.

Hala ere, ekintzaile batek bere pentsamenduak ideietatik negozioetara igartzeko prozesuan, enpresa berri bat sortzeak suposatzen dituen lan administratiboez gain, finantzaketa lortzea ezinbestekoa izaten da kasu gehienetan.


Horretarako, ekintzaileak, ideia batez gain, finantza arloan gutxieneko jakituria minimo bat izan behar du. Sydney-ko Central Queensland unibertsitateko enpresa eta zuzenbide eskolako irakasle den Stephanie Alexandra Macht-ek defendatzen du ekintzailtza eta finantzak eskutik joan behar direla (Macht, 2016).

(Macht, 2016)an, aski azpimarratzen du ekintzaile batek, nahiz eta proiektu bikain bat izan, Hezkuntza Finantzariorik ez badu, probabilitate handiak dituela bere proiektuak porrot egiteko. Beste modu batera esanda, Hezkuntza Finantzarioa jaso duen pertsona batek ekintzaile izatera ausartzen bada, aukera handiagoak izango ditu proiektua aurrera eramateko, finantza arloa ez baita izango kezka nagusienetako bat.

Teoria honen beste bultzatzaile bat EAE Business School da, non García (2018)an baieztatzen da alfabetatze finantzario eta ekintzailtzaileen artean korrelazioa positiboa dagoela, hau da, alfabetatze finantzario duen populazioaren artean ekintzailtza

portzentaje handiagoak daude. Gainera, konparaketa bat egiten du: 80 eta 90 hamarkadetan eskoletan sexu edukazioa landu zen eta haurdunaldiak drastikoki jaitsi ziren moduan, gaur egun eskolan Hezkuntza Finantzarioa irakasten bada, datozen urteetan ekintzaile gehiago izango ditugula aurreikusi daiteke.

5. Grafikoa: Ekintzaile potentzialak Espainian (%)



Iturria: Rodriguez, 2018

Konparaketekin jarraiki, batzuei arrotz egingo zaie, baina Hezkuntza Finantzarioa eta gaixotasunen prebentzioa konparatzen dituen argumentuak aurkitu daitezke. Mundu osoko gobernuek dirutzak inbertitzen dituzte tabakismo, alkoholismo eta droga-mendekotasun prebentzio kanpainetan. Arrazoi nagusia ondorengoa da: aipatutako kanpainetan inbertitzen den euro bakoitzeko, etorkizunean osasun zerbitzuek euro horren gainera aurrezten dute. Adibidez, Kaliforniako Unibertsitateak plazaratutako ikerketa baten arabera, 1989-2008 epealdian, estatuak tabakismoaren prebentzian inbertitutako dolar bakoitzeko 55 dolar aurrezki diti (Benito, 2013).

Gurera itzuliz, Hezkuntza Finantzarioak aipatutakoarekin antzekotasun bat izan lezake. Hala da behintzat analista finantzario eta ikertzaile ekonomiko den Jorge R. Silva Garciarentzat. Estatu batek gaixotasunen prebentzioen kanpainetan milioiak inbertitzen baditu etorkizunean estatu propioarentzat aurrezki izango delako, Hezkuntza Finantzarioarekin berdin gertatu beharko litzatekeela defendatzen du (García, 2011).

Autorearen esanetan, irakaskuntza prozesuan Hezkuntza Finantzarioa emango balitz, etorkizunean ondorengo onurak izango genituzke:

- Aurrezki eta inbertsio optimizatuak.
- Finantza sistemaren efizientzia.
- Baliabide propioen esleipen zuzena.

- Ekonomiaren hazkundera.
- Langabezia tasaren jaitsiera.
- Produktibitatearen hazkundera.
- Aberastasunaren banaketa.

Puntu hauek guztiak gizarteak bere kabuz lortu ezkerro, estatu bateko gobernuak ez lituzke politika sozialetan hainbesteko baliabide ekonomiko inbertitu behar izango. Gauzak honela, Silvak argudiatzen du, orain hezkuntzan inbertitzen dena etorkizunean aurrezteko aukera izango dugula.

Aipatutako lehen puntua erreferentzia moduan hartuta, garrantzizkoa da aipatzea Espainia Europan batezbeste aurretzen denaren erdiaren azpitik dagoela (ikusi 5. irudia), eta horrexegatik aipatzen du Silvak aurrezki eta inbertsioen optimizazioa.

5. Irudia: El País-en titularra

≡ EL PAÍS	NEGOCIO
<h2>España: poco ahorro y mal invertido</h2> <p>Las familias ahorran menos de la mitad que la media europea y los activos que poseen son tan conservadores que hasta un billón de euros pierde poder adquisitivo</p>	

Iturria: Fernandez, 2018

Gaur egun, Espainiako Gobernuak ez du plan espezifikorik Hezkuntza Finantzarioaren alorrean. Estatu mailan, Espainiako Bankuak eta Balore Merkatuen Batzorde Nazionalak dira honen inguruan plan bat egituratu duten entitateak. Hala ere, honen ondorengo ataletan aztertuko dugu zein den Hezkuntza Finantzarioaren egoera.

Hezkuntza Finantzarioa jasotzearen aldeko beste arrazoi bat aztertzeko, Capuano eta Ramsay (2011)ren ikerketan, aipatutako hezkuntza jaso duen gizarte lagin bat, hezkuntza hori jaso ez duen beste lagin batekin konparatzen da. Bertan ondorioztatzen da Hezkuntza Finantzarioa jaso duten gizabanakoek, Hezkuntza Finantzarioa jaso ez dutenak baino jarrera finantzario hobea eta erabaki egokiagoak hartzen dituztela. Aipatutako jarrera finantzarioak ondorengoak izanik:

- **Aurrezki kudeatu:** Real Academia Españolak (RAE) aurrezte aditza ohiko gastuetatik diru kantitate bat gordetzea bezala definitzen du. Lehenik eta behin, aipatzekoa da aurrezte ez dela posible gizarte osoarentzat. Erreferentzia gisa, Eurostatek plazaratutako datuen arabera, Espainiako aurrezki tasa euroguneko baxuena da (Fernandez S. , 2018). Gauzak honela, aurrezki bat izatea lortzen duen pertsonak hainbat metodo ditu diru kantitate hori kudeatzeko.

Badaude kontu korrontean dirua geldirik uzten dutenak edo produktu finantzario ezberdinetan inbertitzen dituztenak. Beste aukera bat gestore bat kontratatzea izan liteke. Hala ere, finantza arloko adituek diote dibertsifikatzea dela aurrezkiaren kudeaketa egokiaren zutabeetako bat, arrisku finantzarioa murrizteko (Bankinter, 2017).

6. Grafikoa: Espainiako aurrezki tasa



Iturria: Galera, 2018


- Erretirorako gehiago aurreztu: Estatu mailan pentsio sistema publikoari buruz dagoen eztabaida medio, gaur egun gazteak direnen erretiro garaian zer gertatuko den ezezaguna da.

Nazioarte Diru Funtsak, etorkizunean pentsio publiko egoki bat izateko, bi aholku eman dizkio Espainiar Gobernuari: Alde batetik, langileen erretiroa atzeratzea eta beste aldetik biztanle bakoitzak dituen diru-sarreraren %6a pentsio plan batean inbertitzea (Urrutia, 2019).

Espainiako Gobernuak, akaso etorkizuneko pentsio publikoak guztiz garbi ikusten ez dituelako, gazteek pentsio plan pribatuak kontratatzekeo pizgarriak jarri zituen martxan 2017an lege dekretu bidez (Viaña, 2017). Neurri garrantzitsuenetako bat plana kontratatzen den unetik 10 urtera dirua errekuaratzeko aukera da. Orain arte, iraupen luzeko langabezia edo gaixotasun larri batek jota ez bazen, erretirora arte itxaron beharra zegoen dirua berreskuratzeko.

OCDEk 2018an pentsio pribatuen inguruan argitaratutako informean ikus daiteke, Espainiak, BPGa oinarritzat hartuta, pentsio plan pribatuetan inbertitutakoa, gainontzeko estatuekin egindako mediaren ia 40 puntu azpitik kokatzen dela (OCDE, 2018, or. 9).

7. Grafikoa: Pentsio Planetan inbertsioa BPGarekiko



Iturria: OCDE, 2018, or. 9

- **Zorren kudeaketa egokia:** Mailegu hipotekario bat sinatzen den momentuan, zor hori kitatzeko baldintzak ere sinatzen dira: iraupena, kuotaren zenbatekoa, interes mota... Pertsona zordun batek hainbat hartzekodun baditu, zor horren kudeaketa egokiak garrantzia izan dezake. Adibidez, 3 hartzekodun badaude baina soilik biri ordaintzeko haina diru badago, zein bi hartzekodunei ordainduko zaie? Beste modura batera esanda: zein hartzekodun ez ordaintzeak eragingo du kalte gutxien?

Arrazoi honegatik, atalaren hasieran aipatutako ikerketan (Capuano & Ramsay, 2011), Hezkuntza Finantzarioa jaso duen laginak zorren kudeaketa egokiagoa izan zuen.

Bestalde, egunkari eta albisteetan askotan entzun izan dugu enpresa edota herrialde batek bere zorra berregituratu duela. Honek, pertsona, entitate, enpresa edo estatu batek hartzekodunekin duen zorraren baldintzak birnegoziatu egin direla esan nahi du. Kasu hauetan, ohikoena zorretan dagoen

diru kantitatea, interes-tasa, zorra amortizatzeko metodoa edo kuoten maiztasuna berriro negoziatzea da (Gil, d.g.).

6. Irudia: EFE-ko titularra



The image shows a screenshot of the EFE EMPRESAS website. At the top left is the EFE logo and the word 'EMPRESAS'. At the top right is a search bar with the text 'Búsqueda Avanzada' and 'buscar ...'. Below the header is a large orange banner with the headline 'Eroski alcanza un acuerdo para reestructurar 2.605 millones de deuda'. Underneath the headline is a sub-headline: 'Eroski ha llegado a un acuerdo con sus principales entidades financieras acreedoras para la reestructuración de su deuda por importe de 2.605 millones de euros hasta 2019.'

Iturria: EFE Empresas, 2014

- Finantzaketa eskatzerako garaian zentzudun jokatu: aurreko puntuarekin jarraiki, zorraren kudeaketa egoki bat egin baina lehenago, mailegu bat eskatzeko garaian zentzudun jokatu behar da. Gure benetako beharretara mugatu eta ez behar duguna baina diru kantitate handiagoa eskatu.

Atzeraldi Handiari buruzko ulergarriak diren analisiak egiteagatik ospetsu egin da Leopoldo Abadía. Berak aurkezten duen “NINJA”² teorian, krisialdi garaia iritsi baina lehenago, familia askok, maileguak eskatzearen erraztasuna ikusita, ez zutela zentzudun jokatu eta behar baina mailegu handiagoak eskatu zituztela adierazten da (Abadía, 2008).

Adibidez, etxebizitza bat erosteko 100.000 € behar zituen familiak 130.000€-ko mailegua eskatzen zuen. Gainera, bankuek, geroz eta kantitate handiagoak mailegatu, orduan eta interes gehiago jasoko zutenaren pentsamenduarekin, hori ahalbideratu zuten.

- Helburu finantzario errealistak ipini: Muga errealistak jartzeak betegarriak diren xedeak finkatzean datza. Adibidez, alokairuan bizi den 4 kidez osatutako familian soldata xume bakarra sartzen bada, hilero soldataren %5a aurrezteko helburua izatea errealista izan daiteke denboraren baitan. Bestalde, soldataren %50a aurrezteko helburua zailtasunekin bete ahal izango da.
- Norberaren gaitasun eta jakituria finantzarioak balioetsi: 2016. urtean aurkeztu zen lan batean baieztatzen da “Espainiako populazioaren %54ak pentsatzen du finantza alorrean dituen ezagutzak ertainak edo altuak direla” (Bover *et al*, or. 20).

Capuano eta Ramsayen (2011) ikerketan, Hezkuntza Finantzarioa jaso zuten pertsonen gehiagorekin hitz egiten zuen norberaren gaitasun finantzarioez, Hezkuntza Finantzariorik ez zutenek ez bezala.

² NINJA teoria: Subprime krisia azaltzen duen teoria. NINJA hitza “No Incomes, No Jobs, No Assets”tik eratorria da.

1. Taula: Norberaren jakintza finantzarioen pertzepzioa

	Oso Bajua	Nahiko Bajua	Ertaina	Nahiko edo oso altua	Ez dakit
TOTALA	17	29	46	8	0
ADINA					
18-34	12	30	49	9	0
35-44	12	26	52	9	0
45-54	15	28	47	9	0
55-64	22	30	43	6	0
65-79	31	29	35	5	1
GENEROA					
Gizona	17	29	46	8	0
Emakumea	20	30	44	6	0
HEZKUNTZA MAILA					
Lehen Maila	30	31	36	3	0
Bigarren Maila	9	30	52	9	0
Unibertsitatea	7	25	55	13	0
LAN EGOERA					
Autonomia	12	25	51	11	0
Langilea	11	28	51	9	0
Langabetua	20	30	44	5	0
Jubilatua	27	28	38	6	1
Beste batzuk	24	31	38	6	0
FAMILIA EGITURA					
Bikotearekin bizi da	17	28	47	8	0
Beste helduekin bizi da	16	31	45	8	0
Ez da helduekin bizi	22	26	42	10	0
ETXEKO ERRENTA					
<14.500 €	28	30	38	4	0
14.501 € - 26.000 €	16	32	46	6	0
26.001 € 44.500 €	9	25	55	10	0
> 44.500 €	5	24	54	17	0
ONDARE HIGIEZINAK					
0 etxeren jabe	18	27	47	8	0
1 etxeren jabe	20	30	44	6	0
2≤ etxeren jabe	14	28	48	9	0
AUTONOMIA ERKIDEGOAK					
Andaluzia	21	29	43	7	0
Aragoi	13	28	52	7	0
Asturiasko Printzerria	19	33	42	6	0
Balear uharteak	19	24	46	10	0
Kanariak	19	25	47	8	1
Kantabria	15	31	47	7	0
Gaztela -Mantxa	15	30	49	6	0
Gaztela eta Leon	21	28	45	6	0
Katalunia	14	27	52	7	0
Extremadura	19	28	43	10	0
Galizia	21	27	46	6	1
Madrilgo Erkidegoa	20	31	42	6	0
Murtziako Eskualdea	12	30	47	11	0
Errioxa	19	25	49	7	0
Valentziar Erkidegoa	19	31	43	7	0
Nafarroa	22	31	40	7	0
Euskadi	21	28	46	5	0

Taulan aztertu daitekeen moduan, Ikerketa honen arabera, Unibertsitate mailako ikasketak garatu dituzten pertsonen artean, alfabetatze finantzario ertain edo altua dutela pentsatzen dutenak %68 dira. Aldiz, Derrigorrezko Lehen Hezkuntza izan dutenen artean ehuneko hau ia erdira jaisten da (%39).

Datuak geografikoki aztertuz, autoebaluaziorik altuena Aragoi eta Kataluniako populazioek dute, erantzuleen %59ak jakintza finantzario ertain edo altua dituztela erantzuten baitute. Beste muturrean nafarrak daude, ehuneko hau %47ra jaitsiz.

- Arriskuen baloraketa: Lan honen hasieran, Hezkuntza Finantzarioa definitzerako garaian azaltzen den moduan, produktu finantzario orok duen arrisku finantzarioa adierazten duen indikatzaile bat erakustera behartzen du legeak (1. Irudia).

Hala ere, Hezkuntza Finantzarioa jaso duen laginak, orokorrean, jaso ez duen laginak baina hobeto neurtzen du produktu baten arriskua. Beste hitzetan esanda, produktu bat geroz eta hobeto ulertzeko gaitasuna duen pertsona batek, produktu horrek berak duen arriskua hobeto ulertzeko gaitasuna du.

- Merkatu finantzarioetan parte hartu: Gainontzeko europar estatuarekin alderatuz, espainiarrek merkatu finantzarioetan duten parte hartzea urria da. 2014. urtean, Espainiako familien %11,4a soilik zen akziodun (Futuro A Fondo, 2017). Gainera, familia horiek akzioetan egiten duten batezbesteko inbertsioa 11.200 €ko da (Banco de España, 2017).

Aholkulari, abokatu eta enpresen egituraketa eta estrategian aditua den Francisco Lopezen hitzetan “Espainiar minoristak gutxi eta gaizki inbertitzen du, modu espekulatiboan eta gorakada azkarren bila” (López, 2018, or. 1).

Gauzak honela, oinarri dugun ikerketan, Hezkuntza Finantzarioa jaso duen laginak merkatu finantzarioetan parte hartzeko joera handiagoa erakutsi du, hezkuntzarik jaso ez duen laginarekin konparatuz.

- Kontsumitzaileen eskubideak hobeto ezagutu: Askotan ikusi edo irakurri izan ditugu enpresa handiek gizartearen gain egindako gehiegikeriak. “Gaur egungo sistemari Timokrazia deitzeak hitz-joko bat dirudi, baina bizi dugun egoeraren deskripzio egoki bat besterik ez da. RAEk gogoan hartu beharko luke. *Firme usted aquí que la letra pequeña ya se la explicaré yo cuando sea demasiado tarde*-ren garaian, Timokraziako kontsumitzailea mugitu ezin den arrain txiki bat bilakatu da, marrazoez infestatutako mundu batean” (Sanchez, 2017, or. 15).

Kontsumitzaile moduan ditugun eskubideak ezagutzea garrantzizkoa izan liteke arazo bat gertatuz gero erreklamazio bat jartzerako garaian. Hezkuntza Finantzarioa jaso zuen populazioaren laginak aipatutako eskubideak barneratzeko erraztasun handiago erakutsi zuen gainontzekoekin alderatuz (Capuano eta Ramsay, 2011).

Beheko taulan, Espainiako Bankuak estatu mailan zerbitzu finantzarioengatik jasotako erreklamazioen inguruko datuak agertzen dira:

2. Taula: Espainiako Bankuak jasotako erreklamazioak

	2017	2018
Erreklamazioak	40.176	19.695
Erreklamatzaillearen aldeko ebazpenak	% 73,07	%70,14

Iturria: Banco de España, 2019

Gauzak honela, hainbat lanen arabera, frogatu da Hezkuntza Finantzario minimo bat izateak hainbat onura ekar ditzakela. Ikuspegi orokor batetik, ekonomiaren hobekuntza, aurrezki eta inbertsioen optimizazioa eta langabeziaren jaitsiera.

Bestalde, Hezkuntza Finantzarioa izateak gizabanakoei aurrezkiak kudeatu, erretirorako aurrezki, zorrak kudeatu eta finantza arloan zentzudun jokatzeko laguntzen die.

1.5. Hezkuntza Finantzarioari buruzko ikerketak

Atal honetan, orain arte Hezkuntza Finantzarioari buruz egin diren hainbat hausnarketa edo ikerketa aztertuko dira. Lan hauek argitara emango dituzten datu eta ondorioez gain, ondorengo atalean landuko den Hezkuntza Finantzarioaren gaur egungo egoera aztertzen lagunduko dute. Gainera, analizatuko diren lanak GRAL honen bigarren kapituluaren Gipuzkoako Hezkuntza Finantzario maila neurtzeko egingo den ikerketa kuantitatiboaren ikuspuntutik, lagungarriak izan daitezke.

Lau ikerketa aztertuko dira eta lan hauek sailkatzeko irizpidea geografikoa izan da. Lehenik eta behin Espainia mailan egin den lan bat analizatuko da. Ondoren, Europako hainbat herrialdeek parte hartu duten ikerketa bat aztertuko da. Azkenik, mundu mailan egin diren bi lan aurkeztuko dira, bat 15 urteko adinekoei egindakoa eta bigarrena adineko populazioari egindakoa izanik.

1.5.1. Marco Tombretta: Hezkuntza Finantzarioa eta Enpresa Egitura (2016)

Aurrezki Kutxen Espainiako Konfederazioaren (CECA) gizarte-ekintzak bultzatuta, Tombrettak (2016) egindako ikerketan, Espainiar estatuko Hezkuntza Finantzarioa aztertzen da. Lan hau egiteko, 500 pertsonako lagina erabili du autoreak eta "1A" eranskineko taulan lagin horri buruzko informazioa jasotzen da, sexu, adin, formakuntza maila eta norberaren Hezkuntza Finantzarioaren autoebaluazioaren arabera.

Guztira 8 galdera dira ikerketa honetako inkestan planteatzen direnak. Autoreak, lehenengo 3 puntuetarako Lusardi eta Mitchell (2006) baliatzen ditu eta ondorengo 5 galderak lan honetarako propio prestatutakoak dira. Zailtasun irizpideak erabilita, aipatutako lehen 3 galdera hauek Hezkuntza Finantzario basikoarekin erlazionatzen dira eta azkeneko 5 galderak, Hezkuntza Finantzario aurreratuekin³. Garrantzitsua da aipatzea erantzun zuzenak eta erantzun posibleen interpretazio desberdinak Tombretta (2016) ikerketaren autoreak jasotakoak direla.

Galdera guztiak test modukoak dira, testu moduko erantzunak dakartzaten interpretazio arazoak ekiditeko. Gainera, galdekizun guztiak zuzenak ala okerrak izateak erantzuleak bi multzotan sailkatzeko aukera ematen du. Ondorioz, asmatzaile portzentaje bat izateak galdera berdinak erabili dituzten gainontzeko ikerketekin konparaketak egitea ahalbideratzen du.

Behin 8 galdera hauek planteatuta, ikerketan plazaratzen diren datuak bi bloketan aurkezten dira. Alde batetik, lehen 3 galderak edo Hezkuntza Finantzario basikoarekin erlazionatzen dituenak eta bestetik ondorengo 5 galderak, Hezkuntza Finantzario aurreratukoak. Bereizketa hau egiteak arrazoi nagusi bat dut: lehen aipatu bezala, lehen 3 galderak egiteko, autoreak Mitchell eta Lusardi (2007) hartzen du oinarritzat, eta gainera Hezkuntza Finantzarioa neurtzeko mundu mailan instituzio ezagunenek

³ Irakurleak nahi izanez gero, ikertzaileak planteatutako 8 galderak lan honen "1B" eranskinean aurkitu ditzake.

erabiltzen dituzten ohiko 3 galdera dira, eta beraz, beste herrialde batzuetan egindako ikerketekin konparaketa egiteko ahalmena ematen du horrek.

Tombretta (2016)k bere ikerketan lortutako datuak hainbat herrialdekoekin alderatzen ditu, 3. taulan ikus daitekeen moduan:

3. Taula: Hezkuntza Finantzario basikoa – Nazioarteko konparaketa

HERRIALDEA	URTEA	LAGINA	INTERES TASA			INFLAZIOA			DIBERTSIFIKAZIOA			3 GALDERAK ZUZEN
			Zuzen	Oker	Ez dakit	Zuzen	Oker	Ez dakit	Zuzen	Oker	Ez dakit	
Espainia	2015	500	85,2	6,8	8	70	9,8	20,2	56,2	6,8	37	44,8
EE.UU.	2009	1.488	64,9	21,6	13,5	64,3	21,5	14,2	51,8	14,5	33,7	30,2
Holanda	2010	1.665	84,8	6,3	8,9	76,9	9,6	13,5	51,9	14,9	33,2	44,8
Alemania	2009	1.059	82,4	6,6	11	78,4	4,6	17	61,8	5,9	32,3	53,2
Japon	2010	5.268	70,5	17	12,5	58,8	12,6	28,6	39,5	4,4	56,1	27
Australia	2012	1.024	83,1	10,5	6,4	69,3	17,7	13	54,7	7,7	37,6	42,7
Zelanda Berria	2009	850	86	10	4	81	14	5	27	71	2	24
Suitza	2011	1.500	79,3	17,9	2,8	78,4	17,4	4,2	73,5	13,5	13	50,1
Italia*	2007	3.992	40	31,8	28,2	59,3	10	30,7	52,2	14,1	33,7	24,9
Suedia*	2010	1.302	35,2	49,2	15,6	59,5	24	16,5	68,4	13,2	18,4	21,4
Frantzia*	2011	3.616	48	40,5	11,5	61,2	17,5	21,3	66,8	18,6	14,6	30,9
Errusia*	2009	1.366	36,3	30,8	32,9	50,8	23,1	26,1	12,8	51,8	35,4	3,7
Errumania*	2011	1.030	41,3	24,3	34,4	31,8	27,8	40,4	14,7	21,8	63,5	3,8

OHARRA: * Galderen formulazioa antzekoa da baina ez guztiz berdina

Taula aztertuz, ikusten da 3 galderak zuzen erantzuten dituzten herrialdeen sailkapen bat eginez gero, Alemania eta Suitza kokatzen direla buruan gainontzekoengandik urrun, %53,2 eta %50,1ekin, hain zuzen. Behe aldera begiratu ordea, Errumania eta Errusia ditugu, 3 galderak zuzen erantzun duten biztanleriaren ehunekoak %3,8 eta %3,7 izanik. Espainia sailkapenaren goiko aldean kokatzen da %44,8rekin. Aipatzekoa da, gainera, estatu espainiarrak inflazio tasaren galderan asmatzaile portzentaje altuena lortzen duela.

Honetaz gain, lagin osotik 3 galdera basiko guztiei zuzen erantzun dieten pertsonak hala erantzun ez dutenekin alderatzen baditugu, ondorengo tauletan agertzen diren datuak argitaratzen dira ikerketan.

4. Taula: Hezkuntza Finantzario basikoa sexuaren arabera

HERRIALDEA	SEXUA			
	Gizona		Emakumea	
	3 zuzen	Besteak	3 zuzen	Besteak
Espainia	53,4	46,6	26,7	73,3
EE.UU.	38,3	61,7	22,5	77,5
Holanda	59,6	40,4	47,5	52,5
Alemania	55,1	44,9	35	65
Suitza	62	38	39,3	60,7

Iturria: Tombretta, 2016, or. 19

4. taulan frogatzen da finantza esparru basikoetan, gizonek emakumeek baino ezagutza handiagoa erakusten dutela egin zaien inkestan. Espainiako kasuan, 3 galderak zuzen erantzun dituzten gizonek emakumeen portzentajea bikoizten dute.

5. Taula: Hezkuntza Finantzario basikoa hezkuntza mailaren arabera

HEZKUNTZA MAILA	3 Zuzen	2≥ Zuzen
Lehen Maila	33,3	66,7
Bigarren Maila	29,6	70,4
Batxilergoa	39,8	60,2
Formakuntza Profesionala	31,8	68,2
Unibertsitatea	52	48

Iturria: Tombretta, 2016, or. 19

Hezkuntza mailari dagokionez, joera logikoa nagusitzen da: geroz eta ikasketa maila altuagoa izan, orduan eta asmatzaile portzentaje altuagoak daude. Hala ere, salbuespen bat aztertu daiteke: Derrigorrezko Lehen Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara asmatzaile ehunekoak jaitsi egiten da %3,7an.

Galderen erantzunak utzitako datuen analisiarekin jarraiki, Hezkuntza Finantzario aurreratuarekin erlazionatutako erantzunak utzitako datuak aztertzen dira ondorengo taulan. Logikoa denez, azken 5 galdera hauek, aurreneko 3 galderekin alderatuta, konplexutasun handiagoa dute eta beraz, asmatzaile portzentajea jaitsi egiten da.

Ondoren azaltzen den 6. taula honetan galdera bakoitzak izan dituen asmatzaileak agertzen dira:

6. Taula: Hezkuntza Finantzarioari buruzko 8 galderen erantzunak

	ZUZEN	OKER	EZ DAKIT
BASIKOA			
1. Galdera: Interes konposatua	85,2	6,8	8
2. Galdera: Inflazioa	70	9,8	20,2
3. Galdera: Dibertsifikazioa	56,2	6,8	37
AURRERATUA			
4. Galdera: Zorra	29	63,2	7,8
5. Galdera: Salmentak	48,8	42,6	8,6
6. Galdera: Eskudirua	43	47,2	9,8
7. Galdera: Amortizazioa	52,4	27	20,6
8. Galdera: ROA vs ROE	8,8	23,4	67,8

Iturria: Tombretta, 2016, or. 20

Salmenta, eskudiru eta amortizazioen galderei dagokienez, gutxi gora behera erantzuleen erdiak zuzen erantzuten du. Bestalde, Zorrari dagokion galderen asmatzaileen ehunekoa %29ra jaisten da eta beherakada handiagoa da oraindik ROA eta ROE galderari dagokion datuan (%8,8).

Gauzak honela, Tombretta (2016) ikerketan, autoreak hainbat ondorio ateratzen ditu, ondorengo lerroetan azalduko direnak. Lehenik eta behin, Espainiak duen Hezkuntza Finantzario basikoa, beste herrialdeetan dutena baina altuagoa da. Datu hau zalantzarria izan liteke autorearentzat, 500 pertsonako lagina erabiltzen baitu, eta gainontzeko herrialdeetako laginak nabarmen handiagoak baitira.

Beste alde batetik, zorraren galderatik jasotako erantzunetatik, autoreak dio espainiarrak zorra kontzeptu negatibo bezala barneratuta dutela eta ez negozioaren finantzazio modu bat bezala.

Ikertzaileak hautemandako beste ondorioetako bat hurrengoa da: erantzun duten pertsonak irabaziak salmenten igoerekin eta kutxan dagoen diruarekin erlazionatzen dute.

Puntu negatibotzat, dio, laginaren erdiak baina gehiagok gutxienez galdera bat oker edo "Ez dakit" erantzun duela, eta horrek Hezkuntza Finantzario urria dagoela adierazten omen duela.

Ondorioak ondorio, oinarritzat dugun ikerketa honetan, autoreak onartzen du ez dela gai erantzun kontserbadore hauen zergatia emateko. Gainera, etorkizunera begira, aitortzen du lan honetan hartutako datuak sistematikoki jasotzea eta hartu beharreko neurriak inplementatu eta gero datu hauen garapena ikustea beharrezkoa ikusten duela.

1.5.2. ING: Ohitura Finantzarioen nazioarteko inkesta (2012)

2012. urtean, ING entitateak TNS aholkularitza agentziari ondoren aurkezten den txostena egiteko ardura esleitu zion. Ikerketa Europako 11.000 biztanleko lagin bati egindako lana da, inkestan parte hartu duten pertsonak ondorengo herrialdeetakoak izanik: Alemania, Austria, Belgika, Espainia, Frantzia, Italia, Luxenburgo, Holanda, Polonia, Erresuma Batua eta Turkia (ING, 2012).

Aurkeztutako lanean, hainbat datu ematen dira Europa mailan dagoen Hezkuntza Finantzarioa analizatzeko. Adibidez, TNSk egindako ikerketa honen arabera, espainiarren %46ak ez du sekula Hezkuntza Finantzarioa jaso, eta %90ak gaur egungo edukazio sisteman beharrezkoa ikusten du.

Honen harira, ING entitateko zuzendari nagusia den Carina Szpilak ondorengoa dio: “Ezin dugu beste alde batera begiratu. Kontsumitzaileen finantza kudeaketan laguntzeko erantzukizuna dugu. Gure seme-alabei Hezkuntza Finantzario egokia ematen badiegu, trebatutako kontsumitzaileak dituen gizarte bat garatuko dugu, eta honek enpresa hobeagoak izaten lagunduko digu” (ING, 2012, or. 1).

5 galdera izan dira inkesta honetan planteatu direnak. Aurretik komentatu den moduan, zenbait galdera ohikoak dira Hezkuntza Finantzarioa neurtzeko garaian, eta kasu honetan, lehen bi galderak aurretik analizatu den inkestaren berdinak dira⁴.

Behin inkestan egindako galderak analizatuta, aipatutako 11.000 biztanleko lagin honek galdetgia erantzun eta gero, 7. taulan laburtzen diren datuak eman zituen argitara txostenak.

7. Taula: Hezkuntza Finantzarioari buruzko 5 galderen erantzunak

	ZUZEN (%)	OKER (%)	EZ DAKIT (%)
1. Galdera: Interes tasa	79	11	10
2. Galdera: Inflazioa	75	9	16
3. Galdera: Bonoak	25	38	37
4. Galdera: Hipotekak	54	24	22
5. Galdera: Errentagarritasuna	41	27	32

Iturria: ING, 2012, or. 1


7. taulan erakusten diren datuak, lagina bere osotasunean hartzen du kontutan, herrialdeka inongo bereizketarik egin gabe. Bertan analizatu daiteke inflazioaren galdera dela gehien asmatu dena eta bonoen prezioen ingurukoa asmatzaile gutxien bildu dituen.

ING (2012) ikerketan herrialde bakoitzeko biztanleak, asmatu dituzten galderen arabera sailkatuta agertzen dira 8. grafikoan. Bertan antzeman daiteke, 5 galderak zuzen erantzun dituzten herrialdeen rankingean, Espainia azkena dela, espainiarren %5ak baino gutxiagok asmatu baitituzte galdera guztiak. Bestalde, Turkia da ranking honetan garaile, gainontzeko herrialdeetatik nabarmenduz.

Estatu mailako datuekin jarraituz, 3 edo 4 galdera asmatu dituztenak %53 inguru dira, eta portzentaje hau %42koa da 2 galdera zuzen edo gutxiago erantzun dituztenen artean.

⁴ Ikerketa honetan parte hartu duten boluntarioek erantzun behar izan dituzten galderak eranskineko “2A” atalean aurki daitezke.


8. Grafikoa: Inkestaren erantzunak herrialdeka



Iturria: ING, 2012, or. 1

Honetaz gain, ikerketa honen amaieran, lagina osatzen duten biztanle bakoitzari, bere bizitokiko batezbestekoarekin konparaketa egiteko eskatzen zaio, jakituria finantzario altuago, berdina ala baxuagoa duen galdetuz. Beheko grafikoan aztertu daiteke, turkiar gehienak batezbestekoaren gainetik daudela pentsatzen dutela, %60ak baina gehiago.

9. Grafikoa: Laginaren autebaluzioa herrialdeka



Iturria: ING, 2012, or. 1

Espaniako kasuan, %30ak pentsatzen du, jakituria finantzarioei dagokienez, batezbestekoaren gainetik daudela, %50ak baina gehiagok gainontzekoen maila

berdina dutela dio eta geratzen diren ia %20ak irizten du batezbestekoak baina jakituria baxuagoa dutela.

1.5.3. OCDE: Ikasleen Ebaluaziorako Nazioarteko Programa (PISA) (2012 eta 2015)

Mundu mailan aski ezaguna den OCDEk, 3 urtetik behin, entitatearen parte diren herrialdeetan PISA ikerketa eramaten du aurrera. 2012. urtean finantza arloko galderak gehitu ziren azterketara eta 2018ko emaitzak argitaratu gabe daudenez, 2012 eta 2015 urtekoak analizatuko dira ondorengo lerroetan.

Laginaren erreferentzia gisa, 2015eko ikerketan OCDEren kide diren 72 herrialdeetako 15 urteko 540.000 ikasleek hartu zuten parte (OCDE, 2016).

Azkeneko emaitzak argitaratu ziren momentuan, erakundeko Idazkari Nagusia den Jose Angel Gurría mexikarrak ondorengo esan zuen: “herrialde guztiak, baita aurreratuenak ere, hobetzeko aukerak ditu. Gazteen langabezia, handitzen doazen desberdintasunak, genero bereizketak (...) hezkuntza arloan ezin dugula denborarik galdu gogorarazten digute” (OCDE, 2016).

PISAk ez ditu egindako azterketak argitaratzen, baina frogaren nondik norakoak gutxi gora behera azaltzeko eta zuzenketa irizpideak zeintzuk diren jakinarazteko, azterketa eredu bat argitaratu du (Instituto Nacional de Evaluación Educativa (INEE) eta Ministerio de Educación, Cultura y Deporte, 2013)⁵.

Aurretik aztertu diren ikerketan ez bezala, kasu honetan, test moduko galderez gain, erantzun arrazoituak emateko aukera duten galderak daude. Arrazoi honegatik, erantzun bat zuzentzat jo daitekeen jakiteko, PISAk erantzun zuzen posibleen zerrenda argitaratzen du. Gauzak honela, erantzun bat zuzentzat jotzeko PISAk baldintza bakarra ipintzen du: erantzunean zerrendako argudioren bat aipatzen bada, zuzena da eta beste kasu guztiak okertzat eman behar dira.


Ondoren, azterlan honek utzitako emaitzak azalduko dira. Aurretik esan bezala, hainbat herrialdek parte hartzen dute eta azterketa berdinak egiten direnez, konparaketarako egokiak dira.

Lehenik eta behin, herrialde bakoitzak lortutako puntuazioa aztertuko da. Ondoren aurkezten den 10. grafikan, 2012ko azterketaren ostean argitaratutako datuak azaltzen dira. OCDEk jakinarazi zuenez, “2012a izan da PISAk Hezkuntza Finantzarioa neurtu duen lehen urtea, eta beraz, OCDEko batezbesteko puntuazioa 500 puntutan ezarri da.” (Instituto Nacional de Evaluación Educativa (INEE) eta Ministerio de Educación, Cultura y Deporte, 2013, or. 42).

Garrantzitsua da aipatzea Hezkuntza Finantzarioari lortutako datuak soilik azaltzen direla aztertuko diren ondorengo grafiketan eta beraz, ez direla kontutan hartzen gainontzeko materietan lortutako kalifikazioak.

⁵ Galdera sorta hau lan honen “3A” eranskinean aurkitu daiteke.

10. Grafikoa: Hezkuntza Finantzarioko emaitzak PISA 2012 azterketan




Iturria: Instituto Nacional de Evaluación Educativa (INEE) eta Ministerio de Educación, Cultura y Deporte, 2013, or. 43

Grafikan analizatu daitekeen moduan, Txina da aztertutako herrialde guztietatik nabarmentzen dena 600 puntu baina gehiago lortuz. Espainia OCDEk 500 puntutan ezarritako batezbestekoaren azpitik kokatzen da 484 punturekin. Zerrendan gorantz eginez gero, guk lortutakoaren antzeko emaitza lortzen dute Errusia (486), Frantzia (486) eta Esloveniak (485), baina oso urrun gelditzen gara Polonia (510), Txekia (513), Estonia (529) eta Belgikak (541) lortu dituzten emaitzetatik.

Beherantz eginez, aipatzekoa da Italiak lortutako 466 puntuak eta azken postuan geratzen den Kolonbia (379).

Datu hauei jarraipena emateko, PISAk 2015. urtean berriro ere Hezkuntza Finantzarioari buruzko azterketa egin zien OCDEko kide diren herrialdeei. Ondoren erakusten den 11. Grafikak bigarren aldiz egindako ikerketa honen emaitzak ematen ditu argitara. Urte honetan, Hezkuntza Finantzarioan emaitzen batezbestekoa 481 puntutan ezarri zuen OCDEk, 2012an baina 19 puntu gutxiago.

11. Grafikoa: Hezkuntza Finantzarioko emaitzak PISA 2015 azterketan



Iturria: OCDE, 2016, or. 45

Grafikoak erakusten dituen datuak 2012an egin zen ikerketarekin alderatzen baditugu, 2015an ere Txinak jarraitzen du entitateko kideen arteko aitzindaria izaten, baina beherakada nabarmena jasanez (-37).

Espainiari dagokionez, batezbestekoaren azpitik jarraitzen du (469), baina datu hauen interpretazio positibo ala negatiboa egin daiteke. Alde batetik, esan genezake batezbestekotik hurbilago dagoela, 2012an 16 puntu azpitik eta 2015an 12 puntu azpitik baitago. Hala ere, nahiz eta batezbestekoaren jaitsierak Espainiaren emaitza zertxobait lausotzen duen, errealitatea 2012an baina puntuazio baxuagoa lortu duela da.


PISAk, puntuazioak 5 mailatan sailkatzen ditu (OCDE, 2016):

- 1 MAILA: 380-400 puntu
- 2 MAILA: 400-480 puntu
- 3 MAILA: 480-550 puntu
- 4 MAILA: 550-580 puntu
- 5 MAILA: 580< puntu

Gauzak honela, datu objektiboa Espainiak 3 urteren buruan 3 mailatik 2 mailara jaitsi dela da, 484 puntutik 469ra.

Orain arte analizatutako grafikoetan, herrialde bakoitza bere ikasleek lortutako puntuazio global batekin binatu da. Honetaz gain, PISA informeak, herrialde bakoitzeko emaitzak aurretik aipatutako 5 mailatan banakatzen ditu. Beste hitzetan esanda, ondoren ikusten den 12. grafikoan, herrialde bakoitzak, puntuazio maila bakoitzean duen ikasle portzentajea ageri da.

12. Grafikoa: PISA azterketaren emaitzak mailakatuta 2012




Iturria: Instituto Nacional de Evaluación Educativa (INEE) eta Ministerio de Educación, Cultura y Deporte, 2013, or. 53

Herrialde bakoitzaren emaitzak mailakatuta analizatzean, estatu espainiarraren maila OCDEko mediarekin alderatuz ondorengo ondorioztatu daiteke: lehen mailatan (<1, 1, 2 eta 3 mailatan), hau da, emaitza baxuenak esan nahi duten mailatan, Espainiak batezbestekoak baina portzentaje altuagoa metatzen du (Espainiak %78 eta batezbestekoak %69). Bestalde, estatuko ikasleen %23ak lortzen du 4 eta 5 mailatan sailkatzeko puntuazioa, portzentaje hau %32ra igotzen delarik OCDEko batezbestekoan. Honekin ondorioztatzen da Espainiak batezbestekoak baina Hezkuntza Finantzario baxuagoa duela.

2015eko ikerketako datu berdina aztertzen badugu, ondorio berdina atera daiteke.

13. Grafikoa: PISA azterketaren emaitzak mailakatuta 2015



Iturria: OCDE, 2016, or. 55

Kasu honetan, Espainiak maila baxuenetan %78a eta maila altuenetan %22a mantentzen du, batezbestekoa %71 eta %29 izanik 2015an. Beraz, urte honetan ere Espainiako Hezkuntza Finantzario maila batezbestekoaren azpitik kokatzen da.

PISA Ikerketa honen inguruan orain arte aipatutako datuak laburbiltzen dituen taula bat aurkezten da:

8. Taula: PISA ikerketa – laburpena

	2012		2015	
	ESPAINIA	OCDE	ESPAINIA	OCDE
≤1 MAILA	17%	16%	25%	25%
2 MAILA	26%	23%	26%	22%
3 MAILA	35%	30%	27%	24%
4 MAILA	19%	22%	16%	18%
5 MAILA	4%	10%	6%	11%
Puntuazio orokorra	484	500	469	481

Iturria: Norberak egindakoa

Laburbilduz, OCDE entitatea Hezkuntza Finantzarioa neurtzen hasi denetik, Espainia beti kokatu izan da bazkide diren herrialdeen batezbestekoaren azpitik.

1.5.4. WORLD BANK eta STANDARD&POOR´S: Hezkuntza Finantzarioa munduan zehar (2014)

Aztergai izango den azkeneko ikerketa Munduko Bankuak 2014. urtean, Standard & Poor´s agentziaren kolaborazioarekin argitaratutako txostena izango da.

Laginari dagokionez, lan honetarako 140 ekonomia ezberdinetako 150.000 biztanleri egin zaio galdeketa (World Bank eta Standard&Poor´s, 2014). Munduko Bankuak, ahalik eta herrialde gehienetara iristeko helburuarekin, populazioaren %80ak baina gehiagok telefonora irismena ez duen herrialdeetan inkestak aurrez aurre egin ditu, gainontzeko kasuetan inkestak telefonoz egin dituelarik.

Galde sortari dagokionez, aurretik Hezkuntza Finantzarioa neurtzeko ohikoak diren galderen antzekoak erabili dira, galderaren helburua berdina baina planteamenduak hainbat aldaketa izanik⁶.


Inkesta honek utzitako datuekin aurrera jarraitu aurretik, Munduko Bankua orain arte analizatutako gainontzeko entitateengandik desberdintzen da. Izan ere, erantzuleak bi blokeetan sailkatzen ditu: finantzarioki alfabetatua eta ez alfabetatua. Talde batean ala bestean sailkatzeko irizpideari buruz, Munduko Bankuak dio “persona bat finantzarioki alfabetatua kontsideratuko da planteatutako 4 galderetatik gutxienez 3 asmatzen baditu. Aprobatez muga hor ezartzea erabakia da galdetutako kontzeptuak oso basikoak baitira” (World Bank eta Standard&Poor´s, 2014, or. 7).

Behin irizpidea definituta, ikerketak mundu osoko populazioaren %33a finantzarioki alfabetatua dela azaleratzen du. Beste ikuspuntu batetik begiratuta, munduko 3.500 milioi biztanlek ez dituzte finantza kontzeptu basikoak menperatzen. Hala ere, datu hau herrialdeka aztertuta ikusi daiteke garatutako herrialdeek dituztela finantza alfabetatze ratio handienak eta garatu gabeko estatuen biztanleriek dituztela zailtasun handiagoak.

Ondorengo mapak herrialde bakoitzak dituen finantza alfabetatze mailak erakusten ditu.

⁶ Munduko Bankuak planteatutako galderak lan honen eranskineko “4A” atalean aurkitu daitezke.


7. Irudia: Finantza alfabetatzea munduan (%)



Iturria: World Bank eta Standard&Poor's, 2014, or. 7

Honekin batera, txostenak azpimarratzen du diferentzia garatutako herrialde nagusien eta suspertze prozesuan dauden herrialdeen artean ematen dela. Horretarako, galdera bakoitzaren asmatzaile portzentaje globalarekin batera, datu hau garatutako herrialde nagusienak⁷ soilik kontutan hartuta zenbatekoa den eta gorakada nabarmenean dauden herrialdeetan⁸ zenbatekoa den ere azaltzen du 14. Grafikoak.

14. Grafikoa: Munduko Bankuaren azterketaren emaitzak



Iturria: World Bank eta Standard&Poor's, 2014, or. 10

Honetaz gain, Munduko Bankuak finantza alfabetatzea diru sarrerekin erlazionatzen du datuak emateko garaian eta ondorengo baieztapena egiten du: "persona aberatsek pobreek baina gaitasun finantzario handiagoak dituzte" (World Bank eta Standard&Poor's, 2014, or. 14).


Ondorio honetara iritsi ahal izateko, inkesta erantzun duten pertsonen beraien diru-sarreraren inguruan galdetu zaie eta ondorengo datuak azaleratu dira: diru sarrera gehien duten familietan finantza alfabetatzea duten portzentajea (%35<) baliabide ekonomiko urriak dituzten familiaena (%25) baina altuagoa da. Analisi hau garatutako ekonomia nagusi eta susperraldian dauden ekonomiekin soilik egiten badugu ere, ondorio berera iristen gara.

15. grafikoan aipatutako datuak erakusten dira, non kolore bakoitzeko ezkerreko zutabeek familia pobreen finantza alfabetatze portzentajeak erakusten dituzten eta eskubikoek familia aberatsenetan dagoen alfabetatze finantzarioa irudikatzen duten.

⁷ Garatutako herrialde nagusienak: Kanada, Frantzia, Alemania, Italia, Japonia, Erresuma Batua eta Estatu Batuak.

⁸ Gorakada nabarmenean dauden herrialdeak: Brasil, Txina, India, Errusia eta Hego Afrika.

15. Grafikoa: Finantza alfabetatzea eta diru sarrerak



Iturria: World Bank eta Standard&Poor's, 2014, or. 14

Honek agerian uzten du gizabanako bat non jaiotzen den eta etxeko diru sarrerek pertsona horren Hezkuntza Finantzario mailan eragina izan dezakeela. Herralde garatuak eta diru sarrera handienak dituzten familiek gainontzekoak baino maila altuagoa erakutsi baitute.

Atal honekin amaitzeko, aipatu behar da landu diren lau ikerketak Hezkuntza Finantzarioaren egoera hobeto ulertzeko eta ondoren datorren 2. kapituluaren egingo den ikerketan erreferentzia gisa izateko aztertu direla. Behin lau lan hauek analizatuta, Hezkuntza Finantzarioak gaur egun duen egoera aztertuko da.

1.6. Hezkuntza Finantzarioa gaur egun

Behin Hezkuntza Finantzarioari buruz egin diren hainbat ikerketa analizatuta, gaur egun estatu mailan dagoen egoera aztertuko da. Joost Van Lersel Europako Batasun Ekonomiko eta Monetarioko presidentea denaren iritziz "Pertsona baten bizitzan elementu finantzarioen bat inplikatzeko dituen erabaki anitz hartu behar dira: auto bat epeka ordaintzea, mailegu bat eskatzea, seguru bat kontratatzea edota jubilaziorako aurrezteak. Zoritxarrez, Hezkuntza finantzarioari buruz egin diren ikerketek diote (...) jende asko ez dela gai finantza kontzeptu basikoak ulertzeko. Horregatik, biztanleria zaugarria da eta horrek gainzorpetzea eragin dezake" (Comité Económico y Social Europeo, 2016, or. 5).

Gainera, CNMVko lehendakariak eta Espainiako Bankuko gobernadoreak egindako idatzi batean ere bide berdinetik jarraitzeko grina dutela ematen du: "Gaur egun bizi dugun ingurune ekonomiko eta sozial honetan Hezkuntza Finantzarioa elementu protagonista bilakatu da (...) eta organismo publiko zein pribatuek sustatu beharreko materia bat da, agente eta instituzio finantzarioen kolaborazioarekin" (Banco de España eta CNMV, 2018, or. 6).

OCDEk, Nazioarteko Diru Funtsak (FMI) eta Europar Batasunak (EB), beste entitate batzuen artean, kide diren herrialdeei Hezkuntza Finantzarioko programak burutzea gomendatzen die (Banco de España eta CNMV, 2018).

Ikusita mundu mailako entitateek bide beretik zihoazela, egin beharreko programa hauek nolabait bideratzeko jarraibideak eskatu zituzten estatu kideek eta 2016. urtean EBk txosten bat argitaratu zuen, programa hauen ardatz nagusi potentzialak azalduz (Comité Económico y Social Europeo, 2016).

Europar Batasunak, Hezkuntza Finantzarioko programak izan beharreko edukiak finkatu zituen, hainbat irizpideren arabera:

Produktuen arabera:

- Aurrezki produktuak: aurrezki gordailuak, nominak...
- Inbertsio produktuak: kontsumorako kredituak, hipotekak...
- Ordainketa metodoak: kreditu txartelak, zordunketa txartelak...
- Produktu parafinantzarioak: aseguruak, pentsio planak...
- Zerbitzu produktuak: aholkularitza, transferentziak, komisioak...

Adinaren arabera:

- Umeak: Aurrezten ikasten
- Gazteak: Aurrezten ikasten, lanean hasten, Bizitza independente bat hasten,
- Helduak: Familia bat sortzen
- Nagusiak: Erretirorako aurrezten

Hedabidearen arabera:

- Ikastetxeak
- Lantokiak
- Enpresa elkarte eta sindikalak
- Kontsumitzaile elkarteak
- GKEak
- Nagusien erresidentziak
- Komunikabideak
- Internet

Honetaz gain, txosten hau 2016. urtean argitaratu zenerako, zenbait herrialdeek Hezkuntza Finantzarioari buruzko programak jada martxan zituzten. EBk, hauetako batzuk adibide gisa aipatu zituen.

Aipatutako herrialdeetako bat Espainia da. Gauzak honela, gaur egun arte Hezkuntza Finantzarioaren arloan zein pauso eman diren eta ondorengo urteetarako zein plangintza dagoen aztertuko da.

2008 urtean, CNMV eta Espainiako Bankuak Hezkuntza Finantzarioa ardatz duen lehen proiektua abian jartzen dute, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak lagunduta (Banco de España eta CNMV, 2018). Bertan, populazioaren osotasunera bideratutako material didaktikoa aurkezten da, baina gehienbat gazteei zuzendutako programa da. Urte honetan bertan, sortzaileek "FINANZAS PARA TODOS" marka eta web orrialde bat plazaratzen dituzte (www.finanzasparatodos.es).


Urteak aurrera joan diren heinean, hainbat instituzio eta entitate, hitzarmenen bitartez, programaren kide bilakatu dira, nabarmenenak ondorengoak izanik (Blanco Hernández, 2015):

- Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa
- Espainiako Banka Erakundea (AEB)

- Aurrezki Kutxen Espainiako Konfederazioa (CECA)
- Kreditu Kooperatiben Elkarte Nazionala (UNACC)

Programa honek, pilotu gisa, “Plan de Educación Financiera 2008-2013” jartzen du abian (Banco de España eta CNMV, 2008). Bertan definitzen da, programaren helburu nagusia populazioaren Hezkuntza Finantzarioa hobetzea dela eta jardueren irismena bi bloketan zatitzen du: oraindik Hezkuntza Sistema Publikoan diharduten gazteak eta helduak. Behin aurrekoa finkatuta, 2008-2013 epealdirako 4 fase ezartzen dira, ondorengo irudian ikusten den moduan:

8. Irudia: “Plan de Educación Financiera 2008-2012”: Faseak



Iturria: Norberak egindakoa

CNMV eta Espainiako Bankuak, proiektu honen garapenean baieztatzen dute “helburua populazio osoari formakuntza finantzarioa eskaintzea denez (...) materia ikuspuntu praktiko eta interaktibo batetik eskaini behar da. (...) Horretarako, eskaintzen den edukia finantza eta pedagogia adituek garatutakoa da” (Banco de España eta CNMV, 2008, or. 24).

Kasu honetan, adituek, programaren lehen urrats hauetan, hurrengo alorrak jorratzea erabaki dute:

9. Taula: “Plan de Educación Financiera 2008-2012”: edukiak

Nola iritsi hilabete bukaerara	Etorkizunaren planifikazioa	Bizitza etapa bakoitzeko behar ekonomikoak
Produktu eta zerbitzu finantzarioak	Biziraupen finantzarioa	Gogoratu...

Iturria: Norberak egindakoa

2012. urtean programa bukatzen denean, egindako lanaren balorazioa egiten du CNMV eta Espainiako Bankuko lan taldeak, bertan 4 ondorio nabarmenduz (Banco de España eta CNMV, 2013):

- Programaren jarduerak ikaslegoaren gaitasun finantzarioak hobetzea lortu dute.
- Edukiaren interesagatik, irakasleria eta parte hartu duten administrazioen aldetik Hezkuntza Finantzarioa eskola curriculumean txertatzeko posibilitatea sortu da.
- Formakuntza jaso duten ikasleen jarrera eta programarekiko harrera positiboa izan da. Ikasleek finantza alfabetatze eta egunerokotasunaren arteko lotura hautematea lortu da, finantza munduari buruzko pentsaerak eta jarrerak positiboki aldatuz.
- Ikaslego zein irakasleriarentzat emandako edukiak baliagarriak izan dira.

Gauzak honela, programa beste 5 urtez luzatzea erabaki zen 2013. urtean, "Plan de Educación Financiera 2013-2017" programarekin gauzatu zena.

Gaur egun, programa bere bigarren luzapenean dago, izan ere, aurreko urtean, CNMV eta Espainiako Bankuak "Plan de Educación Financiera 2018-2021" jarri zuten martxan.

Azken plan hau aurkeztearekin batera, aurreko 10 urtetan egindakoaren baloraketa bat egin da. Gutxi gora behera, urtero programan parte hartzeko izena ematen duten ikastetxeak 500 inguru dira, hauetatik %70a ikastetxe publikoak izanik, ondoren itunpeko ikastetxeak daude %25arekin eta azkenik zentro pribatuak %5a dira. Datu orokor gisa, azken urteetan egindako jardueraz 300.000 ikasle inguru baliatu dira (Banco de España eta CNMV, 2018).

Behin programaren euskarriak finkatuta, 2018-2021 epealdirako hainbat helburu eta jarduera markatzen ditu programak, bere egunerokotasuneko jardueraz gain:

- Web orrialdearen aldaketa: Alor honetan bi azpigelburu nagusi finkatu dira. Alde batetik, edukien eta interfazearen eguneratzea eta beste aldetik telefono mugikorretara egokitzea.
- Hezkuntza Finantzario digitala: Txostenean baieztatzen den moduan, "alfabetatze finantzario digitalaren beharra gai garrantzitsu bilakatu da Planarentzat, nazioarteko agendaren zati bat okupatzen baitu" (Banco de España eta CNMV, 2018, or. 37). Beste hitzetan esanda, programak egunerokotasuneko finantza erabakiak errazteko diseinatua badago, eta gaur egun finantzen digitalizazioa ematen ari bada, programak ere bide hori hartu behar du.
- Populazio segmentu berriak identifikatzea: Orain arte programaren muina gehienbat 14-16 urte bitarteko gazteei zuzenduta egon da, nahiz eta populazio osoari zuzendutako ekintzak ere egin izan diren. 2018-2021 epealdirako, Hezkuntza Finantzario behar gehienak dituen beste populazio segmentu bat identifikatzea izango da helburuetako bat, ondorengo epealdietan bertan jarduteko asmoz. Gaur egun, Espainiako Bankuak eta CNMVak baditu zenbait segmentu identifikatuta, baina behar gehien duten kolektiboa identifikatu nahi da. Entitateek segmentu posible bezala, ondorengoak azaltzen dituzte: 18-34 urte bitartekoak, 65 urte baina gehiagokoak, diru sarrera urriak dituztenak edota hezkuntzarik jaso ez duten pertsonak.
- Planaren promozioa: aurretik aipatu bezala, gaur egun 500 ikastetxe inguruk hartzen dute parte boluntario gisa programan. 2018-2021 epealdirako zifra honen hazkundea da beste helburuetako bat.

Behin espainiar estatuan planteatutako plan honen nondik norakoak ezagututa, argi geratu da azken urte hauetan Hezkuntza Finantzarioaren alorrean pausoak ematen ari direla.

Hala ere, oraindik ez da neurtzailerik erabili programa honek izan duen eraginkortasuna estimatzeko, edo ez da argitaratu, behintzat. Gauzak honela, ezin daiteke baloratu plan honen arrakasta.

2. KAPITULUA: Gipuzkoako Hezkuntza Finantzarioaren ikerketa

Behin aurreko kapituluan Hezkuntza Finantzarioaren azterketa orokorra egin delarik, 2. kapitulu honetan Gipuzkoan dagoen Alfabetatze Finantzarioa analizatuko da. Mundu zein estatu mailan dagoen egoera analizatuta eta neurketa hori probintzia mailan oraindik egin ez denez, aztertu diren ikerketetan oinarrituz, Gipuzkoa hartuko da aztergai.

Lehen kapituluan aztertu diren ikerketak Aurrezki Kutxen Espainiako Konfederazioa (CECA), ING, OCDE eta Munduko Bankuak argitaratutako lanak izan dira. Lau lan hauek hartzen dira erreferentzia moduan Gipuzkoako Hezkuntza Finantzarioa neurtzeko.

2.1. Populazioa eta informazioa jasotzeko metodoa

Ikerketaren populazioa Gipuzkoako biztanleak, 18 urtetik gorakoak, osatzen dute. Berau identifikatzeko, azken hauteskundeetako zentso elektoralera erabili da.

Laginari dagokionez, erantzule kopuruaren tamaina optimoa kalkulatzeko hainbat estimatzaile daude. 100.000 elementu baino gutxiagoko populazio baten lagin optimoa nahi bada, populazio finitua esaten zaio eta aipatutako biztanle kopurua baina handiagoa bada, populazio infinitua. Kasu honetan Gipuzkoako biztanleriaren Hezkuntza Finantzarioa neurtu behar da eta 2019ko Gipuzkoako zentso elektoralera 587.278 pertsonakoa denez (Eusko Jurlaritzak, 2019), populazio infinitu bezala landuko da eta ondorioz, ondorengo formula erabiliko da (Mesonero de Miguel, 2005):

$$n_0 = \frac{pq Z_{\alpha/2}^2}{e^2}$$

Laginketan aditua den Mikel Mesoneroren hitzetan, “p eta q kalkulatzeko kasu okerrenera jo dezakegu, heterogeneitate handiena inplikatzeko duen kasua eta, beraz, laginaren tamainarik handiena eskatzen duena. Kasu hau p=q=0,5 da” (Mesonero de Miguel, 2005, or. 118)

“e” balioa laginketa akatsa da eta “laginak hartzen dituen balioen eta populazioko balioen artean ikertzailea onartzeko prest dagoen diferentzia da. Balio hau ikertzaileak ezartzen du” (Mesonero de Miguel, 2005, or. 114). Kasu honetan, e = %5 ezarriko da.

“Z” balioaren kasuan, ikerketaren konfiantza maila %95an ezartzen bada, $\alpha=0,05$ da eta beraz $Z_{\alpha/2}= 1,96$ da.

Gauzak honela, laginaren tamaina optimoa ondorengoa da:

$$n = \frac{(0,5) * (0,5) * (1,96)^2}{(0,05)^2} = 384,16 \text{ inkesta}$$

Behin Gipuzkoa mailako laginaren gutxieneko tamaina kalkulatu, probintziako alfabetatze finantzarioa neurtzeko 550 biztanleko lagin bat osatu da prestatutako inkesta erantzun dezan. Lortutako lagina, gutxieneko tamaina baina handiagoa denez, egindako akatsa %5a baina txikiagoa izango da.

Galdeketa bi bloketan banatu da: Hezkuntza Finantzario basikoa eta Hezkuntza Finantzario aurreratua. Aldez aurretik pare bat alditan aipatu den moduan, finantza gaitasunak neurtzeko nazioarte mailako edozein ikerketetan azaltzen diren 3 galdera daude, aurretik analizatu diren lanetan ere agertu direnak. Lehen blokean ohiko 3

galdera basiko horiek galdetu dira eta bigarren blokean aldiz, aztertutako lanetan erabilitako beste 3 galdera, azken hauek konplexutasun handiagoa dutelarik.

Gauzak honela, lan honetan laginari aurkeztu zaion galdeketa ondorengoa izan da:

- 1)** Suposatu urteko %2ko interes tasa duen aurrezki kontu batean 1.000 € dituzula. Hemendik 5 urtera, zenbat diru izango zenuke?
 - a) 1.100 € <
 - b) 1.100 €
 - c) 1.100 € >
 - d) Ez dakit

- 2)** Suposatu zure aurrezki kontuaren urteko interes tasa %1ekoa dela eta inflazio tasa %2koa. Urtebete ondoren, zenbat ondasun erosteko ahalmena izango duzu?
 - a) Gaur erosi ditzakedan ondasunak baina gehiago erosteko ahalmena
 - b) Gaur erosi ditzakedan ondasunak erosteko ahalmena
 - c) Gaur erosi ditzakedan ondasunak baina gutxiago erosteko ahalmena
 - d) Ez dakit

- 3)** Adierazi ondorengo baieztapena EGIA ala GEZURRA den: Orokorrean, enpresa bakar bateko akzioetan inbertitzeak errentagarritasun seguruagoak sortzen ditu inbertsio fondo baten partizipazioetan inbertitzeak baino.
 - a) Egia
 - b) Gezurra
 - c) Ez dakit


- 4)** Adierazi ondorengo baieztapena EGIA ala GEZURRA den: Enpresa batentzat beti da egokiagoa zorrik ez izatea.
 - a) Egia
 - b) Gezurra
 - c) Ez dakit

- 5)** Enpresa batek 8 urteko bizitza erabilgarria duen ordenagailu bat erosi du 500 €tan. Erosketa honek aurtengo irabazietan ondorengo kantitatea murriztuko du:
 - a) 500 € <
 - b) 500 €
 - c) 500 € >
 - d) Ez dakit

- 6)** Adierazi ondorengo baieztapena EGIA ala GEZURRA den: 15 urteko hipoteka batek hileroko kuota altuagoak izaten ditu 30 urteko hipoteka batek baino, baina ordaintzen diren interes kantitatea txikiagoa da.
 - a) Egia
 - b) Gezurra
 - c) Ez dakit

Galdeketa Internet bidez bideratu da 2019ko maiatzean zehar eta aipatu bezala, azkenean galderak Gipuzkoako 550 biztanlek erantzun dituzte. Inkestako erantzuleen identitatea ez da argitaratuko beraien anonimotasuna mantentzeko, baina bertan parte hartu duen laginaren gutxiengo informazio bat izateko, galderekin hasi aurretik, erantzuleei bere adina, generoa, hezkuntza maila eta finantza arloan euren buruak puntuatzeko eskatu zaie. Informazioa hau ondorengo grafikoetan ikus daiteke.


16. Grafikoa: Inkestaren erantzuleak adinaren arabera



Iturria: Norberak egindakoa

16. grafikan argi ikusten da erantzun gehienak 18 eta 34 urte bitarteko populazioarenak direla. Hala ere, zenbaki absolutuen ikuspuntutik erreparatzen bazaio, 55 urtetik gorako biztanleria tartean 81 eta 35-54 urte tartekoan 153 izan dira jaso diren erantzun kopuruak.

17. Grafikoa: Inkestaren erantzuleak generoaren arabera




Iturria: Norberak egindakoa

Generoari dagokionez, 307 (%55,8) emakumek hartu dute parte inkestan eta gizonezkoak 243 (%44,2) izan dira.

Ondorengo grafikoan erantzuleen hezkuntza maila agertzen da:

18. Grafikoa: Inkestaren erantzuleak hezkuntza mailaren arabera



Iturria: Norberak egindakoa

Hezkuntza mailari dagokionez, erantzuleen gehiengoak (%68,9) unibertsitate ikasketak egindako biztanleria da, bigarren postuan formakuntza profesionalak jarraitzen diolarik (%18,5). Ondoren batxilergo ikasketak jorratu dituzten erantzuleak daude (%8,4) eta gainontzeko aukerek ez dute %2 baina pisu handiago lortu.

Ondoren aurkezten den taulan, 550 erantzule hauek zein Hezkuntza Finantzario daukaten uste duten jasotzen da:

10. Taula: Laginaren autoebaluazioa

	Oso baxua (%)	Baxua (%)	Ertaina (%)	Altua (%)	Oso altua (%)
TOTALA	10,9	35,8	42,5	9,1	1,6
ADINA					
18-34	12,3	41,1	37,0	7,9	1,6
35-54	8,5	25,5	53,6	10,5	2,0
55<	11,1	34,6	40,7	11,1	2,5
GENEROA					
Gizona	5,3	30,9	48,6	13,2	2,1
Emakumea	15,6	39,7	37,1	5,9	1,6
HEZKUNTZA MAILA					
Lehen Hezkuntza (LH)	16,7	16,7	66,7	0,0	0,0
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)	9,1	27,3	54,5	9,1	0,0
Batzilergoa	15,2	34,8	32,6	15,2	2,2
Formakuntza Profesionala	8,8	36,3	45,1	9,8	0,0
Unibertsitatea	11,1	36,4	42,2	7,9	2,4
Beste batzuk	16,7	33,3	16,7	33,3	0,0


Iturria: Norberak egindakoa

Taula honetan argi geratzen da, orokorrean, Gipuzkoako biztanleriaren ia %80ak bere Hezkuntza Finantzarioa ertaina edo baxua dela pentsatzen duela. Bestalde, erantzuleen %10ak soilik pentsatzen du bere alfabetatzea finantza arloan altua edo oso altua dela. Datu hauek Bover *et al.* (2016)ek egindako lanarekin alderatzen baditugu (ikusi lan honen 1. taula), portzentaje orokorrak aipatutako lanarekin bat egiten dutela ikusten da.

Genero sailkapena kontutan izanez gero, Hezkuntza Finantzario altua edo oso altua dutela pentsatzen duten gizonek (%15,3), pertzepzio hori duten emakumeen datua bikoizten du (%7,5). Gizonen kasuan, datu hau asko aldentzen da Bover *et al.* (2016)en ikerketatik, bertan portzentajea %8 baita, eta paretzu mantentzen da emakumezkoen kasuan, 1. taulan aurkezten den lanean %6 baita.

Galderen analisisian murgilduz, galderak banaka-banaka aztertuko dira. Lehen galdekizuna interes tasari buruzkoa izan da. Bertan erantzuleak interes konposatua menperatzen duen ikusi nahi izan da eta ateratako datuak ondorengo grafikoan erakusten dira:


19. Grafikoa: Interes tasa konposatuaren galderaren erantzunak



Iturria: Norberak egindakoa

Grafikoak erakusten du galdetu zaion biztanleriaren %76,2ak ez duela interes konposatuaren efektua kontrolatzen. Gainera, gehien erantzun den aukera, %38,4 erantzunekin, “1.100 €” izan da, hau da, interes tasa sinpleak ematen duen emaitza.

20. Grafikoa: Inflazioaren galderaren erantzunak




Iturria: Norberak egindakoa

Galdera basiko guztietatik inflazioarena izan da erantzun zuzen gehien bildu dituen puntua, 314 erantzun zuzenekin (laginaren % 57,1a). Erantzule askoren hitzetan, interes tasaren kontzeptua gutxi gora behera ulergarria da, baina askok ezin izan dute inflazioa zer den deskribatu.

Hala ere, oker erantzun duten guztiek inflazioa zer den ez dakitela baieztatzea ere ez da zuzena, izan ere, askok jakin badakite prezioak urtetik urtera igo egiten direla, baina ez dakitena da gorakada horri inflazioa deitzen zaiola.

21. Grafikoa: Arriskuaren dibertsifikazioaren galderaren erantzunak



Iturria: Norberak egindakoa

Inkesta erantzun duten ia erdiak zuzen erantzun dio arriskuaren dibertsifikazioaren inguruko galdera honi. Bestalde, galdera hau izan da “ez dakit” erantzun gehien jaso dituen galdera. Inkestak ez du testu moduko erantzunik uzteko aukerarik baina erantzule askok jakinarazi du “ez dakit” jartzearen arrazoia ondorengoa izan dela: ez dakite zer diren inbertsio fondo bat edota fondo baten partizipazioak eta honek akzioekin ezin konparatzeak ekarri du.

Behin lehen 3 galderak banaka-banaka analizatu ondoren, lehen blokea osorik analizatu da hurrengo taulan.

11. Taula: Hezkuntza Finantzario basikoa

	3 zuzen (%)	2≥ zuzen (%)
TOTALA	7,3	92,7
ADINA		
18-34	7,9	92,1
35-54	5,9	94,1
55<	7,4	92,6
GENEROA		
Gizona	7,4	92,6
Emakumea	7,2	92,8
HEZKUNTZA MAILA		
Lehen Hezkuntza (LH)	0,0	100,0
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)	0,0	100,0
Batxilergoa	8,7	91,3
Formakuntza Profesionala	6,9	93,1
Unibertsitatea	7,7	92,3
Beste batzuk	0,0	100,0

Iturria: Norberak egindakoa

Galdera basikoak izanik, pertsona batek Hezkuntza Finantzario basikoa duela baieztatzeko 3 galderak zuzen erantzutea izango da jarraituko den irizpidea. Gauzak honela, galdetutako 550 pertsonetatik % 7,3ak soilik erantzun ditu 3 galderak zuzen.


Generoari dagokionez, ez dirudi inongo efekturik duenik, asmatzaile portzentajea ia berdina baita, %0,2ko aldearekin.

Adinari erreparatzen badiogu, 18 eta 34 urte bitartekoak dira asmatzaile portzentaje handien dutenak, 55 urtetik gorako erantzuleak puntu portzentual erdira jarraiki.

Hezkuntzari dagokionez, batxilergo ikasketak dituztenak dira 3 erantzun zuzen gehien eman dituztenak, eta ez Formakuntza Profesionala edota Unibertsitate ikasketak dituztenak, nahiz eta azken hauek ikasketa maila altuagoak izan. Ondorioz, galdera hauetan hezkuntza maila altuagoa izateak ez du bermatzen asmatzaile portzentaje altuagoak izateko joera.

Hurrengo grafikoetan inkestako azken 3 galderak analizatuko dira, hots, Hezkuntza Finantzario aurreratuari dagozkionak. 22. grafikoak inkestako 4. galderak plazaratutako datuak erakusten ditu:

22. Grafikoa: Zorraren galderaren erantzunak



Iturria: Norberak egindakoa


Kasu honetan ere, gehiengo batek erantzun zuzena eman du (% 52,9). Hala ere, zenbateko hau agian ez da guztiz errealia edo degradatua egon liteke, nolabait esatearren. Finantza arloko kontzeptuak menperatzen ez dituen pertsona batek zorra zerbait negatibotzat ulertu dezake eta beste kontestu batean zorra ez izatea egokia dela esango luke. Kasu honetan, galdera hau "Hezkuntza Finantzario aurreratua" blokean egoteak erantzulea pentsaraztea ekarri dezake eta nahiz eta zergatik ez jakin, bere pentsamenduaren aurka erantzun.

Ondorio honetara iristeko arrazoa hurrengoa da: erantzuleetako askok, behin inkesta amaitzean, galdera honen ingurua informazioa eskatu dute, beraiek "Egia" erantzuteko intentzioa izan dutela baina bloke aurreratuko galdera izanik, "Gezurra" erantzun dutela argudiatuz, erantzun honen zergatia jakin nahian.

Beste ikuspuntu batetik begiratuta, galdetu den laginaren ia 10 pertsonatik 4k zorra zerbait negatibotzat dute eta beraz, ez dute menperatzen zorrak ekarri ditzaken alde positiboak.

Inkestaren 5. galdera enpresak erosten dituen ondasunen amortizazioarekin erlazionatzen da. Galdera honen helburua erantzuleak amortizazio kontzeptua menperatzen duen edo ez jakitea da.

23. Grafikoa: Amortizazioaren galderaren erantzunak



Iturria: Norberak egindakoa


Inkesta osatzen duten 6 galderetatik amortizazioaren galdera da asmatzaile gutxien bildu dituen. 550 pertsonetatik 103k soilik, hau da, %18,7ak, asmatu dute urteko irabaziak 500 € baino gutxiago murriztuko direla.

Laginarean laurdenak (%25,3) pentsatu du, ordenagailua 500 €tan erosi baldin bada, urte horretako irabaziak kantitate berdinean murriztuko direla. Honek ondorioztatzen du pertsona hauek ez dituztela menperatzen enpresa baten erosketek bere kontabilitatean duten eragina.

Hala ere, gehiengoak (%39,8) irabaziak 500 € baino kantitate handiagoan murriztuko direla pentsatu du. Aurretik esan bezala, inkestak ez du testu moduko erantzunik emateko aukerarik baina behin inkesta amaitu dutenean, erantzule askok komentatu dute "a" aukera hautatzearen arrazoia ondorengoia izan dela: ordenagailuak 500 €ko prezioa badu, izan liteke bidalketa, mantenu edo aseguru gastuak gehitu behar izatea.

Galderen bakarkako analisiarekin amaitzeko, azkeneko galdera hipoteketan ordaintzen diren hileko kuota eta interesen inguruan izan da. Nahiz eta Hezkuntza Finantzario aurreratuko galdera izan, azkeneko galdera hau izan da inkesta guztitik asmatzaile zuzen gehien pilatu dituen galdera.

24. Grafikoa: Hipoteken hileroko kuota eta interesen galderaren erantzunak



Iturria: Norberak egindakoa

Aurretik aipatu bezala, galdera honek bildu ditu asmatzaile kopuru (339 erantzule, hau da, %61,6a) altuenak.

Galdera honen analisiarekin jarraiki, baieztapenaren lehenengo zatia nolabaiteko logika erabiliz egia dela ondorioztatu daiteke, hau da 15 urteko hipoteka batek hileroko kuota altuagoak izaten dituela 30 urteko hipoteka batek baino. Kasu honetan, erantzuleek zuzen ondorioztatu dute diru kantitate bat mailegatzen bada, kantitate hori 15 urtetan itzultzea edo 30 urteetan itzultzeko aukerak izanik, lehen aukeran hileroko kuotak altuagoak izango direla. Beste hitzetan esanda, diru zenbateko berdina denbora epe erdian itzuli behar bada, hileroko itzuli beharrekoa kantitate handiagoa izan beharko da.

Lehen blokean egin dugun moduan, Hezkuntza Finantzario aurreratuko galderek bere osotasunean emandako datuak aztertuko dira ondorengo lerroetan.

Aurreko kasuan, erantzuleak Hezkuntza Finantzario basikoa duela baieztatzeko 3 galderatik 3 erantzun zuzen behar izan ditu. Kasu honetan, Hezkuntza Finantzario aurreratua izanik, galderen konplexutasuna altuagoa izan da eta beraz, pertsona bat bloke aurreratuan alfabetatua dela baieztatzeko irizpidea ondorengoa izango da: 3 galderatik gutxienez 2 galdera zuzen erantzun beharko dira.

Behin irizpidea finkatuta, ondorengo taulak Hezkuntza Finantzario aurreratuko emaitza globalak erakusten ditu:

12. Taula: Hezkuntza Finantzario aurreratua

	2 ≤ zuzen (%)	1 ≥ zuzen (%)
TOTALA	42,0	58,0
ADINA		
18-34	37,3	62,7
35-54	40,5	59,5
55<	63,0	37,0
GENEROA		
Gizona	48,6	51,4
Emakumea	36,8	63,2
HEZKUNTZA MAILA		
Lehen Hezkuntza (LH)	33,3	66,7
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)	54,5	45,5
Batxilergoa	34,8	65,2
Formakuntza Profesionala	33,3	66,7
Unibertsitatea	44,6	55,4
Beste batzuk	66,7	33,3

Iturria: Norberak egindakoa

Adinari dagokionez, adin tarteak gora egin ahala hautematen da 2 edo 3 galdera zuzen egindako portzentajeak gora egiten duela. Honela, 18-34 urte bitarteko erantzuleen alfabetatze portzentajea %37,3a da eta 55 urtetik gorako adina tartera igarotzean portzentaje hau 25 puntu portzentual igotzen da %63raino.


Generoan ere aldea nabaria da. Gizonen ia erdia Hezkuntza Finantzario aurreratuan alfabetatua da, baina portzentaje hau laurden bat jaisten da emakumeen kasuan.

Azkenik, hezkuntza mailari dagokionez, lehen blokeko joera bat errepikatzen da: ikasketa basikoagoak dituzten erantzuleak formakuntza profesionala edo unibertsitate ikasketak dituztenak baina hobeto erantzun dute. Bloke basikoan, batxilergo ikasketak dituztenak izan dira alfabetatze maila gehien gainditu dutenak. Bloke aurreratuan, ikasketa basikoagoa den Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) soilik dutenak izan dira alfabetatze portzentaje altuena dutenak (Beti ere hezkuntza mailan “beste batzuk” aukeratu dutenak baztertuta).

Gauzak honela, DBH ikasketak dituzten ikasleen erdiak baina gehiagok (%54,5) 2 erantzun zuzen edo gehiago lortu dituzte, datu hau %44ra jaisten delarik unibertsitate ikasketak jorratu dituzten pertsonetan eta hare gehiago jaisten da formakuntza profesionala landu dutenen artean, %33,3ra, hain zuzen.

Inkestaren analisiarekin amaitzen joateko, galdeketaren datu global bat aztertuko da. Ondorengo taulak erantzuleek frogan lortutako kalifikazioak laburbiltzen ditu, zutabe bakoitzak nota jakin bat lortu duen pertsona kopurua azaltzen duelarik.

25. Grafikoa: Inkestako kalifikazio bakoitzeko erantzule kopurua



Iturria: Norberak egindakoa

Datu globalei erreparatzen bazaie, denetariko erantzunak jaso dira. Galdera guztiak oker erantzun dituzten pertsonak %4,5a izan dira eta galdekizun guztiak zuzen erantzun dituztenak, ordea, %2,5. Galdera guztietatik 3 asmatzea izan da gehien errepikatu den kalifikazioa, laginaren laurdenak baina gehiagok lortu baitu aipatutako kalifikazioa (%27,6). Ondoren, oso gertutik jarraituta, 6 galderetatik 2 erantzun zuzen lortu dituztenak daude %24,9arekin. Gauzak honela, laginak lortutako batezbesteko puntuazioa 2,63 izan da.

Azkenik eta inkestak azaleratu dituen datu globalekin amaitzeko, 6 galderen erantzunak laburbiltzen dituen 13. taula aurkezten da. Bertan, galdera bakoitzeko asmatzaile portzentajea azaltzen da, adin, genero eta hezkuntza mailaren arabera. Honetaz gain, sailkapen irizpide bakoitzak izan duen kalifikazioaren xehetasunak ere ageri dira.

13. Taula: Inkestaren laburpena

	Asmatzaileak (%)						Kalifikazioa (%)						
	1. galdera: interes tasa konposatua	2. galdera: Inflazioa	3. galdera: Arriskuaren dibertsifikazioa	4. galdera: Zorra	5. galdera: Amortizazioa	6. galdera: Hipoteka	0 zuzen	1 zuzen	2 zuzen	3 zuzen	4 zuzen	5 zuzen	6 zuzen
TOTALA	23,8	57,1	48,2	52,9	18,7	61,6	4,6	17,3	24,9	27,6	17,7	5,3	2,6
ADINA													
18-34	29,1	45,2	46,8	47,4	22,7	61,7	6,1	19,3	26,2	24,3	15,2	5,7	3,2
35-54	18,9	71,2	50,9	64,0	13,7	62,7	1,9	14,7	20,8	31,9	25,5	3,9	1,3
55<	13,5	72,8	48,1	53,0	16,0	56,7	3,7	14,8	30,8	29,6	12,5	6,1	2,5
GENEROA													
Gizona	18,1	67,4	51,4	59,2	18,5	65,4	3,3	11,9	27,5	27,2	21,4	5,8	2,9
Emakumea	28,6	47,8	45,6	47,8	19,8	57,9	5,5	21,6	23,9	27,3	14,6	4,9	2,2
HEZKUNTZA MAILA													
Lehen Hezkuntza (LH)	33,3	33,3	50,0	66,6	16,6	50,0	0,0	33,3	16,7	16,7	33,3	0,0	0,0
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)	18,1	63,6	45,4	63,6	36,3	54,5	0,0	18,2	18,2	27,2	36,4	0,0	0,0
Batxilergoa	28,2	54,3	45,6	39,1	19,5	65,2	8,7	13,0	32,6	23,9	8,7	10,9	2,2
Formakuntza Profesionala	14,7	57,8	45,0	51,2	12,7	56,8	5,9	22,5	24,5	28,4	11,8	5,9	1,0
Unibertsitatea	26,3	56,4	49,3	54,6	20,3	62,0	3,9	16,4	24,8	27,5	19,5	4,8	3,1
Beste batzuk	0,0	66,6	50,0	33,3	33,3	83,3	0,0	0,0	50,0	33,3	16,7	0,0	0,0

Iturria: Norberak egindakoa

Taulari erreparatuz, lehen bi galderetan kontrako joera ematen dela bereizten da: interes tasa konposatuari dagokion galderan, 18-34 adin tartea eta emakumeak dira hobekien erantzun duten laginaren atala. Bestalde, inflazioaren galderan, 35-54 eta 55< adin tartean eta kasu honetan gizonak dira gainontzekoengandik diferentzia portzentual nabaria dutenak.

Arriskuaren dibertsifikazioaren galderan hautematen da erantzuleen hezkuntza mailak ez duela eragiten, izan ere, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, batxilergoa eta formakuntza profesionala dutenen artean asmatzaile portzentajea %45an mantendu da hiru kasuetan, eta datu hau %49,3ra igotzen da soilik unibertsitate ikasketak dituztenen artean.

Zorreakin erlazionatu den 4. galderak plazaratzen du 35-54 adin tartea izan dela asmatzaile gehien izan dituen eta gizonen ia 10etik 6k zorra ikuspuntu positibotik barneratuta dutela.

Azkeneko galderan, hipotekaren inguruko galdekizunean, hain zuzen, 55 urtetik gorako adin tartea izan da asmatzaile portzentaje baxuen lortu duen taldea. Datu hau deigarria izan liteke, izan ere, adin tarte hau da hipoteka mailegu bat eskatu izanaren probabilitate altuenak dituenak.

Sailkapen irizpide bakoitzak lortutako kalifikazioei dagokienez, 18-34 adin tartean erantzuleen %75,9a 0 eta 3 erantzun zuzenen artean metatzen du. 35-54 adin tartean, ordea, %62,6a pilatzen du kalifikazioa 3 eta 6 bitartean lortu dutenekin.

Generoari dagokionez, ez da desberdintasun nabarmenik hautematen eta baieztapen berdina ondoriozta daiteke hezkuntza mailari dagokionez, nahiz eta aipatzekoa den, unibertsitate ikasketak dituzten erantzuleek portzentaje altuagoak metatzen dituztela kalifikazio goreneko laukietan.

Orokorrean, muturreko puntuazioak lortu duten biztanleria, hots, 0 edo 6 lortu dutenak, oso gutxi izan dira, biztanleriaren %7,2a, hain zuzen. Erantzuleen erdiak baina gehiagoak 2 eta 3 puntuko notak lortu dituzte (%52,5).

3. Ondorioak

Lan honen helburu nagusia Hezkuntza Finantzarioaren inguruko egoera zein den ezagutzea izan da eta bertara iristeko hainbat galderari erantzuna bilatzen saiatu da.

Horretarako, aztertutako eta landutakoaren ondorioetan sakonduko da. Hainbat alderdi edo motako konklusioak ageri dira, ondorengo lerroetan azalduko diren moduan.

Hasteko, helburuen betetze mailari dagokionez, aipatzekoa da ezarritako helburu nagusia bete dela. Lehenik eta behin, Hezkuntza Finantzarioaren gaur egungo egoera xehetasunez azaldu da. Ondoren, Gipuzkoak duen Hezkuntza Finantzario mailari dagokionez, onartu behar da unibertsitateko lan bat izanik, erabilitako baliabideak eta irismena mugatuak izan direla, baina neurketa aurrera eraman denez, helburua betetzat eta arrakastatsutzat jotzen da.

Hasieran galdera moduan aurkeztu diren azpi-helburuetatik gehienak erantzutea lortu dela baieztatu daiteke. Gaur egun jasotzen dugu Hezkuntza Finantzarioa zein den ezagutzea eta oraindik gehiago behar dugula ondorioztatzea lortu da. Honetaz gain, lan honetan agerian geratu da espainiar estatuan ez dagoela inbertitzeko joera handirik eta inbertitutako hori gaizki egiten dugula. Zehazki, aztertu diren lanetan frogatu da espainiar estatuak, orokorrean, maila baxua duela finantza arloan. Analisi hau nazioarte mailako gainontzeko ekonomiekin egitean ere Espainia ez da postu onean geratzen, adin tarte desberdinak kontutan hartzen dituzten ikerketetan beti lortu baitu batezbestekoak baina kalifikazio baxuagoa. Egoera honen aurrean, estatu espainiarrak Hezkuntza Finantzarioa sustatzeko plan bat abian jarri zuen, baina plan honen emaitzak neurtzen ez diren bitartean, programaren eraginkortasuna zalantzarria suertatzen da, batik bat programa martxan jarri zenetik egin diren lanen kalifikazioak aztertzean. Hala ere, plan horren aurrean gizarteak izan duen jarrera aintzat hartuta, etorkizunean emaitzak hobetzeko aukera ikusten da.

Helburuen betetze mailarekin jarraituz, beste alde batetik, bete ez diren helburuen artean bi dira nagusi: familiek euren ondarea nola banatzen duten eta ondare honi errentagarritasuna ateratzen dioten jakitea. Nahiz eta hasieran planteatutako helburuak izan, prozesuak berak beste jarraibide batzuetatik eraman du GRALa eta lanaren koherentzia mantentzeko, atal hau ez jorratzea erabaki da, etorkizunerako utziaz.

Zati teorikoarekin bukatzeko, ondorengo ondorioa azpimarratuko genuke: alde batetik argi geratu da gutxiengo Hezkuntza Finantzario maila ez izateak ondorio ekonomiko larriak ekarri ditzakela familia batentzat eta beste batetik, Hezkuntza Finantzarioa izateak jarrera finantzario egoki eta arduratsuagoak izatea dakartzala. Gauzak honela, oraindik jasaten ari garen krisialdiaren aldagaietako bat gizarteak duen Hezkuntza Finantzario maila baxua izan daiteke. Ez arrazoi nagusiena, baina bat kontutan hartu beharrekoa.

Lanaren bigarren zatiari dagokionez, aurretik finkatutako helburuak Gipuzkoako kasuari aplikatzeko aukera suposatu du. Ikerketaren emaitzen azterketak galdera ezberdinen erantzunak irudikatzen ahalbideratu du, non aurreko atalean jasotzen diren. Emaitzetako bat azpimarratzearen, ondorengo nabarmentzen da: Batxilergo eta DBHko ikasleak izan dira kalifikazio hobekak lortu dituzten erantzuleak, ikasketa maila altuagoa dutenen aurretik. Emaitza hauen arrazoi posiblea ikasketa maila bakoitzean jorratzen diren materiekin zerikusia izan dezake. Beste hitzetan esanda, DBH eta batxilergoan arlo askotako irakasgaiak lantzen dira, matematika, ekonomia eta administrazioa barne, eta beraz, ikasleen gehiengoak finantza gutxiengo gaitasun bat du. Bestalde, formakuntza profesionala eta unibertsitate ikasketetan norberak aukeratutako materia espezifiko baten inguruko irakasgaiak daude, eta beraz, Psikologia edota Euskal Filologia gradua ikasi duten pertsonen, adibidez, urteak eraman ditzakete Hezkuntza Finantzarioa jaso gabe.

Hala ere, bai ikerketa honek eta baita aurretik gauzatu direnen kasuan, beste baterako aldaketa batzuk sartzea komenigarria ikusten da. Honen arrazoa ondorengo hausnarketen bitartez azaltzen da. Hezkuntza Finantzarioan alfabetatzea sailkatzeko erabili diren irizpideak zalantzarriak izan litezke. Ez du inongo logikarik bloke aurreratuan bloke basikoan baina emaitza hobekoak lortu izanak, beraz, hiru galderatik bi asmatzea Hezkuntza Finantzarioan alfabetatuzat jotzeko irizpide merkeegia dirudi.

Honetaz gain, emaitzak portzentajeetan analizatu behar badira, aipatzekoa da "Egia" edo "Gezurra" moduko galderetan, erantzun zuzen posibleak 2 direla (aurresuposatuz "Ez dakit" aukera okerra dela) eta inkesta honetako beste motako galderetan aukera zuzen posibleak 3 izan direla. Honek galdera batzuk nolabait eraztea ekarri du, emaitzak lausotuz.

Honekin erlazionatuta, bigarren hausnarketa bat: bloke aurreratuan "Egia" edo "Gezurra" motako bi galdera aurkeztu dira, lehen blokean bakarria izanik, eta beraz, bloke aurreratuan nota hobek lortzearen arrazoietako bat izan liteke.

Beraz, hurrengo lan baterako, eragin hauek zuzentzerantz joatea egokiago da.

Azkenik, lan honekin amaitzeko, arlo pertsonalean GRAL honek emandako ekarpen nagusia aipatu nahiko nuke. Gradu osoan zehar, ikaslearen esku geratzen diren irakasgaietan, benetan interesa dudak materialak jorratzeko ahaleginak egin ditut, finantzetako espezialitatea aukeratuz, adibidez, eta GRALak zehazki ildo horretatik jarraitzeko aukera eman dit. Ikasketak egin ditudan urte hauetan guztietan atentzioa eman dit Hezkuntza Finantzarioak. Familia, lagun zein partaide naizen beste gizarte elkarteetan maila oso baxua sumatu izan dut eta arrazoi honegatik, nire GRALa Hezkuntza Finantzarioari buruz egiteko proposamena aurkeztu nuen, unibertsitateak ahalbideratutako gai zerrendatik at. Nire iritziz, proiektua benetan interesa dudak gai baten inguruan izatea nolabaiteko gehigarri bat izan da lan egiteko garaian. Gauzak honela, lan hau gradu ikasketen ginga kontsideratzen dut, zirkuluaren itxiera, eta horrek nolabaiteko harrotasuna ere suposatzen du niretzat.

4. Bibliografía

4.1 Literatura

- Banco de España. (2012). *Informe Anual 2012*. Madrid: Banco de España.
- Banco de España. (2017). *Encuesta Financiera de las Familias (EFF) 2014: Métodos, resultados y cambios desde 2011*. Madrid: Banco de España.
- Banco de España eta CNMV. (2008). Plan de Educación Financiera 2008-2012. Madrid: Artegraf.
- Banco de España eta CNMV. (2013). Plan de Educación Financiera 2013-2017. Madrid: Unidad de Servicios Auxiliares, Banco de España.
- Banco de España eta CNMV. (2018). Plan de Educación Financiera 2018-2021. Madrid: Unidad de Servicios Auxiliares, Banco de España.
- Blanco Hernández, M. (2015). La importancia de la Educación Financiera y su influencia en futuros estudiantes de Administración y Dirección de Empresas. (R. C. Cristina, Ed.) Anuario Jurídico y Económico Escurialense.
- Bover, O., Hospido, L., & Villanueva, E. (2016). Encuesta de Competencias Financieras. Madrid: Banco de España.
- Capuano, A., & Ramsay, I. (2011). What Causes Suboptimal Financial Behaviour? An Exploration of Financial Literacy, Social Influences and Behavioural Economics. Melbourne: University of Melbourne.
- Chang, H.-J. (2014). Economía para el 99% de la población. Barcelona: Debate.
- Comisión Nacional Mercado de Valores, Banco de España. (2018). Plan de educación financiera 2018-2021. Madrid: Unidad de Servicios Auxiliares, Banco de España.
- Comité Económico y Social Europeo. (2016). Educación Financiera para todos: Estrategias y buenas prácticas de Educación Financiera en la Unión Europea. Bruselas: Unión Europea.
- Facua Andalucía Consumidores en acción. (2013). Comisiones bancarias ¿Qué debes saber? Sevilla: FACUA Andalucía.
- FIARE, SETEM Hegoa Haizea, Mugarik Gabeko Ekonomilariak, OikoCredit eta ElkarCredit. (2017). FINANTZAZ HARATAGO. Donostia: Farari Koop.
- Financial Literacy and Educational Commission. (2016). Promoting Financial Success in the United States: National Strategy for Financial Literacy. Washington D.C.: Financial Literacy and Educational Commission.
- García, J. R. (2011). ¿Por qué es necesaria la educación económica y financiera en las universidades? Mundo Siglo XXI, VII(25), 77-99.
- Instituto Nacional de Evaluación Educativa (INEE) eta Ministerio de Educación, Cultura y Deporte. (2013). PISA 2012: Competencia financiera informe español. Madrid: Ministerio de Educación, Cultura y Deporte.
- INVERCO. (2012). Informe 2012 y perspectivas 2013. Madrid: INVERCO.
- Lusardi, A., & Mitchell, O. (2006). Baby Boomer Retirement Security: The Roles of Planning, Financial Literacy and Housing Wealth. Cambridge: Journal of Monetary Economics.

- Macht, S. A. (2016). Putting “entrepreneurial finance education” on the map: Including social capital in the entrepreneurial finance curriculum (58. bol.). Sydney: Emerald Group Publishing Limited.
- Mesonero de Miguel, M. (2005). Ikerketa-proiektuak lantzeko teknikak. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Missé, A. (2016). La gran estafa de las preferentes. Madrid: Alternativas Económicas.
- OCDE. (2005). Improving Financial Literacy. Paris: OCDE.
- OCDE. (2016). PISA 2015: Resultados clave. Paris: OCDE.
- OCDE. (2018). Pension Markets in Focus. Paris: OCDE.
- Olit, B. F. (2014). Principales riesgos sociales y ambientales del negocio bancario en tiempos de crisis. Madrid: Cuaderno Red de Cátedras Telefónica.
- S. Mitchell, O., & Lusardi, A. (2007). Financial Literacy and Retirement Preparedness: Evidence and Implications for Financial Education. New Hampshire: Business Economics.
- Sanchez, R. (2017). Timocracia. Sevilla: FACUA.
- Schröder, C. (2016). Educación financiera: ¿y yo por qué? (I. Econospérides, Ed.) eXtoikos(18), 41-42.
- Tombretta, M. (2016). Educación financiera e iniciativa empresarial en España. Madrid: FUNCAS.
- World Bank eta Standard&Poor’s. (2014). Financial Literacy Around the World. Washington D.C.: World Bank.
- Ziegelmeier, T. B.-K. (2013). Once Burned, Twice Shy? Financial Literacy and Wealth Losses during the Financial Crisis. Oxford: Oxford University Press on behalf of the European Finance Association.

4.2 Web orrialdeak

- Abadía, L. (2008.eko Urriak 20). La teoría NINJA de Leopoldo Abadía. Buenafuente. (A. Buenafuente, Elkarrizketatzailea) LaSexta. Eskuratze-eguna: 2019.eko Apirilak 11. Iturria: <https://www.youtube.com/watch?v=UCCX0EjRohQ>
- Alvarez Ramos Abogados. (d.g.). alvarezramosabogados.com. Eskuratze-eguna: 2019.eko Apirilak 5. Iturria: <https://www.alvarezramosabogados.com/comisiones-bancarias-ilegales-y-legales/>
- Banco de España. (2019). clientebancario.bde.es. Eskuratze-eguna: 2019.eko Maiatzak 8. Iturria: <https://clientebancario.bde.es/pcb/es/menu-horizontal/actualidadeducac/actualidad/estadisticas/>
- Banco Mundial. (d.g.). Datos.bancomundial.org. Eskuratze-eguna: 2018.eko Martxoak 12. Iturria: <https://datos.bancomundial.org/indicador/SI.POV.GINI?end=2014&locations=ES&start=2004&view=chart>
- Bankinter. (2017.eko Uztailak 17). bankinter.com. Eskuratze-eguna: 2019.eko Apirilak 10. Iturria: <https://blog.bankinter.com/economia/-/noticia/2016/12/23/consejos-mejorar-jubilacion-pensiones#>

- Benito, E. D. (2013.eko Otsailak 13). Cada euro gastado en evitar el tabaquismo ahorra 55 en sanidad. El País. Eskuratze-eguna: 2019.eko Apirilak 10. Iturria: https://elpais.com/sociedad/2013/02/13/actualidad/1360780057_230729.html
- Boletín Oficial del Estado. (2015.eko Azaroak 5). www.boe.es. Eskuratze-eguna: 2019.eko Martxoak 22. Iturria: <https://www.boe.es/boe/dias/2015/11/05/pdfs/BOE-A-2015-11932.pdf>
- Checa, J. (2015.eko Apirilak 27). ¿Cuáles son las comisiones más habituales que cobran los bancos a sus clientes? El Confidencial. Eskuratze-eguna: 2019.eko Apirilak 4. Iturria: El Confidencial: https://www.elconfidencial.com/mercados/finanzas-personales/2015-04-27/cuales-son-las-comisiones-que-mas-cobran-los-bancos-a-sus-clientes-en-espana_782350/
- Economía Digital. (2019.eko Otsailak 2). ¿Demasiadas comisiones? Con ellas la banca paga a toda su plantilla. EconomíaDigital.es. Eskuratze-eguna: 2019.eko Apirilak 4. Iturria: https://www.economiadigital.es/finanzas-y-macro/la-banca-cubre-el-coste-de-la-plantilla-con-las-comisiones_603392_102.html
- EFE Empresas. (2014.eko Abuztuak 1). Eroski alcanza un acuerdo para reestructurar 2.605 millones de deuda. efeempresas.com. Eskuratze-eguna: 2019.eko Apirilak 11. Iturria: <https://www.efeempresas.com/noticia/eroski-alcanza-un-acuerdo-para-reestructurar-su-deudapor-2-605-millones-de-euros/>
- Eusko Jaurlaritz. (2019). euskadi.eus. Eskuratze-eguna: 2019.eko Ekainak 11. Iturria: <http://www.euskadi.eus/elecciones-municipales-juntas-generales-europeas-2019-2/-/elecciones-parlamento-europeo-municipales-y-juntas-generales-2019-elecciones-en-cifras/>
- Facua. (d.g.). Facua.org. Eskuratze-eguna: 2019.eko Apirilak 4. Iturria: <https://www.facua.org/comisionesbancarias>
- Fernandez, D. (2018.eko Uztailak 20). España: poco ahorro y mal invertido. El País. Eskuratze-eguna: 2019.eko Apirilak 10. Iturria: https://elpais.com/economia/2018/07/20/actualidad/1532097276_256117.html
- Fernandez, S. (2018.eko Urriak 26). El ahorro y la inversión en España versus Europa: poco y mal. Expansión. Eskuratze-eguna: 2019.eko Apirilak 11. Iturria: https://www.elconfidencial.com/mercados/2018-11-26/ahorro-inversion-espana-europa-comparativa-bra_1661818/
- finanzas.com. (2015.eko Urriak 26). Los seis productos tóxicos bancarios que no te deben colocar. finanzas.com. Eskuratze-eguna: 2019.eko Apirilak 3. Iturria: <http://www.finanzas.com/noticias/mercados/depositos/20151026/seis-productos-toxicos-bancarios-3274740.html>
- Futuro A Fondo. (2017.eko Irailak 17). Más de 5 millones de españoles invierten en Bolsa. futuroafondo.com. Eskuratze-eguna: 2019.eko Maiatzak 8. Iturria: <https://www.futuroafondo.com/es/noticia/mas-de-5-millones-de-espanoles-invierten-en-bolsa>
- Galera, C. (2018.eko Maiatzak 6). Guía para mejorar el ahorro familiar. expansión.com. Eskuratze-eguna: 2019.eko Apirilak 11. Iturria: <http://www.expansion.com/ahorro/2018/05/06/5ae84dfe22601db86c8b459b.html>
- García, N. (2018.eko Martxoak 7). Educación financiera y el impulso de la educación empresarial para el fomento del emprendimiento. eae.es. Eskuratze-eguna: 2019.eko

- Apirilak 10. Iturria: <https://www.eae.es/actualidad/medios/Educacion-financiera-y-el-impulso-de-la-educacion-empresarial-para-el-fomento-del-emprendimiento>
- Gil, S. (d.g.). economipedia.com. Eskuratzeguna: 2019.eko Apirilak 11. Iturria: <https://economipedia.com/definiciones/reestructuracion-de-la-deuda.html>
- Gobierno de Mexico. (d.g.). gob.mx. Eskuratzeguna: 2019.eko Apirilak 1. Iturria: https://www.gob.mx/cms/uploads/attachment/file/83054/Educacion_Financiera.pdf
- Gonzalez, L. (2016.eko Martxoak 16). www.rankia.com. Eskuratzeguna: 2019.eko Martxoak 22. Iturria: <https://www.rankia.com/blog/mejores-depositos/3160105-nuevo-indicador-riesgo-productos-bancarios-que-tienen-mas>
- Gonzalez, R. (2017.eko Irailak 29). Los españoles progresan adecuadamente en economía. Expansión. Eskuratzeguna: 2019.eko Apirilak 4. Iturria: http://www.expansion.com/actualidadeconomica/analisis/2017/09/29/59ce1e9ce5fd_ead7578b462d.html
- ING. (2012.eko Maiatzak 16). Y tú, ¿cómo andas de educación financiera? Eskuratzeguna: 2019.eko Maiatzak 9. Iturria: <https://www.ennaranja.com/actualidad-ing/y-tu-como-andas-de-educacion-financiera/>
- La Sexta. (2012.eko Urriak 27). lasexta.com. Eskuratzeguna: 2019.eko Apirilak 9. Iturria: https://www.lasexta.com/programas/al-rojo-vivo/especial-al-rojo-vivo/bancos-aprovechan-sus-privilegios_201210275727fe5b4beb28d446036d7a.html
- López, F. (2018.eko Apirilak 12). El minorista en España no invierte bien, lo hace de forma especulativa buscando el pelletazo. finanzas.com. (E. García, Elkarrizketazaila) Eskuratzeguna: 2019.eko Maiatzak 8. Iturria: <http://www.finanzas.com/noticias/economia/20180412/francisco-lopez-ideas-invertir-libro-3817238.html>
- Martinez, P. (2016.eko Abenduak 22). Éste es el impacto económico que tendrá la retroactividad total de las cláusulas suelo en cada banco. Idealista. Eskuratzeguna: 2019.eko Apirilak 4. Iturria: <https://www.idealista.com/news/finanzas/hipotecas/2016/12/21/744695-este-es-el-impacto-economico-que-tendra-la-retroactividad-total-de-las-clausulas-suelo>
- Martinez, V. (2019.eko Otsailak 4). La gran banca ingresa ya un 8,5% más por comisiones. El Mundo. Eskuratzeguna: 2019.eko Apirilak 4. Iturria: <https://www.elmundo.es/economia/ahorro-y-consumo/2019/02/04/5c572deffddff5068b4689.html>
- Noticias de Navarra. (2018.eko Azaroak 17). Kutxabank no podrá cobrar comisión en ventanilla por ingresar efectivo en cuenta ajena. Noticias de Navarra. Eskuratzeguna: 2019.eko Apirilak 5. Iturria: <https://www.noticiasdenavarra.com/2018/11/17/economia/kutxabank-no-podra-cobrar-comision-en-ventanilla-por-ingresar-efectivo-en-cuenta-ajena>
- Rodriguez, A. (2018.eko Apirilak 16). hipertextual.com. Eskuratzeguna: 2019.eko Apirilak 10. Iturria: <https://hipertextual.com/2018/04/emprendimiento-graficos>
- Sanz, E. (2019.eko Martxoak 30). Miles de millones en juego: la justicia europea mantiene en vilo a la banca española. El Confidencial. Eskuratzeguna: 2019.eko Apirilak 4. Iturria: https://www.elconfidencial.com/vivienda/2019-03-30/clausulas-abusivas-clausulas-suelo-irph-multidivisas_1908982/

- Sarries, N. M. (2016.eko Uztailak 21). Desahucios en España: Desde el inicio de la crisis más de 400.000 familias pierden una vivienda. Vozpopuli.com. Eskuratze-eguna: 2019.eko Martxoak 25. Iturria: [https://www.vozpopuli.com/economia-y-finanzas/Banco de Espana-Desahucios-Bancos-viviendas-desahucios-vivienda-cgpi-banco de espana_0_936806326.html](https://www.vozpopuli.com/economia-y-finanzas/Banco_de_Espana-Desahucios-Bancos-viviendas-desahucios-vivienda-cgpi-banco_de_espana_0_936806326.html)
- Urrutia, C. (2019.eko Urtarrilak 16). El FMI recomienda a los menores de 28 años que se jubilen cinco años más tarde y se hagan un plan de pensiones. elmundo.es. Eskuratze-eguna: 2019.eko Apirilak 11. Iturria: <https://www.elmundo.es/economia/macroeconomia/2019/01/16/5c3e3d6421efa0bb688b478a.html>
- Viaña, D. (2017.eko Azaroak 13). El Gobierno incentiva que los jóvenes contraten planes privados para complementar su pensión de jubilación. elmundo.es. Eskuratze-eguna: 2019.eko Apirilak 11. Iturria: <https://www.elmundo.es/economia/macroeconomia/2017/11/13/5a098cdbe2704e9e308b464d.html>

1. Eranskina: Marco Tombretta: Hezkuntza Finantzarioa eta Enpresa Egitura (2016)

a) “Hezkuntza Finantzarioa eta Enpresa Egitura” ikerketaren Laginaren informazioa

ADINA	%
25-34	20,6
35-44	39
45-54	30
55-64	10,4
GENEROA	%
Gizona	67,8
Emakumea	32,2
HEZKUNTZA MAILA	%
Lehen Maila	2,4
Bigarren Maila	5,4
Batzilergoa	16,6
Formakuntza Profesionala	17,6
Unibertsitatea	57,6
Beste batzuk	0,4
HEZKUNTZA FINANTZARIOA: AUTOEBALUAZIOA	%
1 (MIN)	5
2	12
3	20,6
4	21,6
5	28,8
6	9,6
7 (MAX)	2,4

Iturria: Tombretta, 2016, or. 14

b) “Hezkuntza Finantzarioa eta Enpresa Egitura” ikerketako galdera sorta

1. Imaginatu urteroko %2ko interes tasa duen aurrezki kontu batean 100 euro dituzula. Hemendik 5 urtera, zenbat diru izango zenuke dirua bertan interesak sortzen utzi ezkeror?

- a) 102 € <
- b) 102 €
- c) 102 € >
- d) Ez dakit

Galdera honekin, gizabanakoak interes konposatuaren kalkulu erraz bat egiten dakien konprobatu nahi da.

2. Suposatu dezagun zure aurrezki kontuaren urteko interes tasa %1ekoa dela eta inflazio tasa %2koa. Urtebete ondoren, zenbat ondasun erosteko ahalmena izango duzu?

- a) Gaur erosi ditzakedan ondasunak baina gehiago erosteko ahalmena
- b) Gaur erosi ditzakedan ondasunak erosteko ahalmena
- c) Gaur erosi ditzakedan ondasunak baina gutxiago erosteko ahalmena
- d) Ez dakit

Galdera honen helburua erantzuleak inflazioaren efektua kontrolatzen duen konprobatzen da.

3. Adierazi ondorengo baieztapena EGIA ala GEZURRA den: Enpresa bakar bateko akzioetan inbertitzeak errentagarritasun seguruagoak sortzen ditu inbertsio fondo baten partizipazioetan inbertitzeak baino.

- a) Egia
- b) Gezurra
- c) Ez dakit

Galdera hau dibertsifikazioaren kontzeptua zer den badakien konprobatzeko egiten da.

4. Adierazi ondorengo baieztapena EGIA ala GEZURRA den: Zorrik ez izatea beti da egoera egokiena enpresa batentzat.

- a) Egia
- b) Gezurra
- c) Ez dakit

Galdekizun honek duen helburua pertsona batek zorrarekiko duen jarrera neurtzea da. (Tombretta, 2016)n aipatzen denez, EGIA erantzuten dutenek zorra zerbait negatibotzat hartzen dutela esan nahi du eta oso erantzun intuitibo eta kontserbadorea da. Bestalde, GEZURRA erantzuten dutenek, enpresa batentzat zorpetzea onuragarria izan daitekeela ulertzen dute, beti ere zorraren maila optimoa bada.

5. Adierazi ondorengo baieztapena EGIA ala GEZURRA den: Enpresa baten salmentak handitzen badira, enpresa ondo doala esan genezake.

- a) Egia
- b) Gezurra
- c) Ez dakit

Negozioaren hazkundera gestionatzeko gaitasuna neurtzeko formulatzen den galdera da. Salmenten hazkundera ez du zertan errentagarritasuna adierazi nahi.

- 6.** Adierazi ondorengo baieztapena EGIA ala GEZURRA den: Epealdi baten amaieran (hilabetea, urtea...) enpresa batek duen eskudirua epealdi horren hasieran zuena baina handiagoa bada, irabazi positiboak izan ditu.

- a) Egia
- b) Gezurra
- c) Ez dakit

Galdera honen planteamenduarekin, erantzuten duen pertsonak irabaziaz izatearen kontzeptua kutxaren fluxuarekin (Egia erantzuten badu) ala sortzapenean oinarritutako irabaziaz (Gezurra erantzuten badu) lotzeko gai den jakin nahi da.

- 7.** Enpresa batek ekipo-ondasun bat erosi du 200 €tan. Ekipoa 5 urteetan erabili behar da. Erosketa honek aurtengo irabazietan ondorengo kantitatea murriztuko du:

- a) 200 € <
- b) 200 €
- c) 200 € >
- d) Ez dakit

Goiko galdekizunarekin, erantzuten duen pertsonak hazkundera sortzen duten inbertsioak kontrolatzen dituen frogatu nahi da. 200 € baina gutxiago erantzuten ez duen pertsona orok intuizioz erantzun duela esan nahi du autorearen ustetan.

- 8.** Aktiboen errentagarritasunari ROA deitzen zaio eta akziodunek inbertitutako funts propioen errentagarritasuna ROE da. Orokorki, zor maila jasangarriagoa da ondorengo ematen bada:

- a) ROA > ROE
- b) ROA < ROE
- c) ROA = ROE
- d) Ez dakit

Autoreak, azkeneko galdera honekin, palanka-efektu finantzarioa menperatzen duen frogatu nahi du. Efektu hau positiboa izango da ROA < ROE denean. Galdera honen erantzun egokiak Hezkuntza Finantzario altua esan nahiko luke autorearen hitzetan.

2. Eranskina: ING: Ohitura Finantzarioen nazioarteko inkesta (2012)

a) "Ohitura Finantzarioen nazioarteko inkesta"-ko galdera sorta

- 1.** Imaginatu urteroko %2ko interes tasa duen aurrezki kontu batean 100 dolar dituzula. Hemendik 5 urtera, zenbat diru izango zenuke dirua bertan interesak sortzen utzi ezkeror?
 - a) 102 \$
 - b) 105 \$
 - c) 110 \$
 - d) Ez dakit

- 2.** Suposatu dezagun zure aurrezki kontuaren urteko interes tasa %1ekoa dela eta inflazio tasa %2koa. Urtebete ondoren, zenbat ondasun erosteko ahalmena izango duzu?
 - a) Gaur erosi ditzakedan ondasunak baina gehiago erosteko ahalmena
 - b) Gaur erosi ditzakedan ondasunak erosteko ahalmena
 - c) Gaur erosi ditzakedan ondasunak baina gutxiago erosteko ahalmena
 - d) Ez dakit

- 3.** Interes tasak igotzen badira, zer gertatzen da bonoen prezioekin?
 - a) Bonoak garestitu egiten dira
 - b) Bonoak merketu egiten dira
 - c) Bonoen prezioak ez dira aldatzen
 - d) Ez dakit

- 4.** 15 urteko hipoteka batek hileroko kuota altuagoak izaten ditu 30 urteko hipoteka batek baino, baina ordaintzen diren interes kantitatea txikiagoa da.
 - a) Egia
 - b) Gezurra
 - c) Ez dakit

- 5.** Loteri kupoiaren prezioa berdina izanik, erosleak ondorengo bi aukera ditu: A loteriak 200 €ko saria du eta irabazteko probabilitatea %5 da. B loteriak 90.000 €ko saria du eta irabazteko probabilitatea %0,01 da. Zein loteriako kupoia erosiko zenuke?
 - a) A loteria
 - b) B loteria
 - c) Berdin dio
 - d) Ez dakit

3. Eranskina: OCDE: Ikasleen Ebaluaziorako Nazioarteko Programa (PISA) (2012 eta 2015)

a) “Ikasleen Ebaluaziorako Nazioarteko Programa” azterketa eredu

1) Clara eta bere lagunak etxe bat alokatu behar dute eta lagun guztiek 2 hilabete daramatzate lanean. Ez dute aurrezkirik. Lagun guztiei hilabetero ordaintzen diete eta bi hilabeteko soldata jaso dute iada. Ondorengo zereginak geratu zaizkie egiteko:

- Kable bidezko telebista kontratatu
- Alokairua ordaindu
- Terrazarako altzairuak erosi

GALDERA: Zerrendatik, zein zeregin(ek) uste duzu du(t)ela lehentasuna?

ZEREGINA	LEHENTASUNA
Kable bidezko telebista kontratatu	Bai / Ez
Alokairua ordaindu	Bai / Ez
Terrazarako altzairuak erosi	Bai / Ez

2) Nataliak astean 3 arratsalde egiten du lan taberna batean. Arratsalde bakoitzean 4 ordu egiten ditu lan eta ordu bakoitzeko 10 € ordaintzen dizkiote. Honetaz gain, astero eskupeko gisa 80 € irabazten ditu. Nataliak astero irabazten duenaren erdia aurrezten du.

GALDERA: Nataliak 600 € aurreztu nahi baditu oportetara joateko, zenbat aste egin beharko ditu lan?

3) Janeiro andreak 8.000 € zedko mailegu bat du Primazed bankuan. Maileguaren urteko interes tasa %15ekoa da eta hileroko kuota 150 zedkoa da.

Urtebete ondoren, Janeiro andreak oraindik 7.400 zedko zorra mantentzen du.

Zedsuper izeneko bankuak, Janeiro andreari 10.000 zedko mailegua eskaintzen dio, urteko %13ko interes tasarekin. Hileroko kuotak 150 zedkoak dira ere.

GALDERA: Zein desabantaila finantzario izan lezake Janeiro andreak Zedsuper bankuaren mailegua onartzen badu?

4) Merkatuan tomateak kiloka edo kaxaka erosi daitezke:

- 2,75 zed kiloko
- 22 zed 10 kg-ko kaxa batengatik

GALDERA: “Tomateak kaxaka erostea kiloka erostea baino ekonomikoagoa da”. Eman baieztapen honen aldeko arrazoi bat.

5) GALDERA: Pertsona batentzat tomate kaxa bat erostea erabaki finantzario okerra izan liteke. Zergatik?

6) Hilabetero, Juanari soldata bere kontu korrontean ingratzen diote. Ondoren Juanaren uztaileko nomina dago:

LANGILEA: Juana Canales	
Lanpostua: saileko arduraduna	
Soldata gordina:	2.800 zed
Kenkariak:	300 zed
Soldata garbia:	2.500 zed
Urteko soldata gordin metatua:	19.600 zed

GALDERA: Zenbat diru kantitate ingresatu zioten Juanari uztailean?

- a) 300 zed
- b) 2.500 zed
- c) 2.800 zed
- d) 19.600 zed

7) Davidek Zedland bankuan kontu korrante bat du eta ondorengo emaila jaso du:

Bezero agurgarria,

Zedland bankuaren zerbitzariak errorea izan du eta zure interneteko sarbiderako gakoak ezabatu dira.

Arrazoi honegatik, ezin duzu internet bidezko bankara sartu.

Honen ondorioz, zure kontua ez da segurua.

Mesedez, sarbidea berreskuratzeko, sakatu beheko linka eta jarraitu argibideak. Zure bankuko datuak eskatuko zaizkizu.

<https://bancozedland.com/>

GALDERA: Ondorengo zein baieztapen aholkatuko zenioke Davidi?

BAIEZTAPENA	AHOLKUGARRIA
Mezuari erantzun eta bankuko datuak eman	Bai / Ez
Mezuari erantzun eta informazio gehigarria eskatu	Bai / Ez
Bankuarekin kontaktuen ipini eta mezuari buruz galdetu	Bai / Ez
Mezuko linka bankuarena bada, linkean sakatu eta argibideak jarraitu	Bai / Ez


8) Elisa Zedlanden bizi da eta kreditu txartel berri bat jaso du. Hurrengo egunean, kreditu txartelaren Identifikazio Zenbaki Sekretua (PIN) helarazten diote Elisari.

GALDERA: Zer egin beharko luke Elisak jasotako PIN zenbakiarekin?

- a) PIN zenbakia paper batean idatzi eta diru zorroan gorde.
- b) PIN zenbakia lagunei esan.

- c) PIN zenbakia txartelaren atzealdean idatzi.
- d) PIN zenbakia memorizatu

9) 12 hilabeteren buruan Roca-Ricaren akzioen prezioa erakusten duen grafikoa dugu:



GALDERA: Ondorengo baieztapenetatik, zein da zuzena?

BAIEZTAPENA	
Akzioak erosteko hilabeterik onena iraila izan zen	Egia / Gezurra
Akzioaren prezioa %50 igo zen epealdi horretan	Egia / Gezurra

10) Lehengo urtean, Estebanek bere motorra PINASEGURA aseguru etxean aseguratu zuen. Polizak istripuak eta lapurretan estaltzen zituen.

Estebanek aurtengo segurua PINASEGURArekin berritzeko asmoa du, baina zenbait faktore aldatu egin dira bere bizitzan.

GALDERA: Nola eragiten diete ondorengo faktoreek aseguruaren kosteari?

FAKTOREA	ASEGURUAN ERAGINA
Estebanek motor zaharra potentzia handiagoa duen motor berri batengatik aldatu du	Kostua igo / kostua jaitsi / ez du eraginik
Estebanek motorra beste kolore batekin pintatu du	Kostua igo / kostua jaitsi / ez du eraginik
Estebanek bi istripu eragin zituen lehengo urtean	Kostua igo / kostua jaitsi / ez du eraginik

11) Sarak posta elektronikoz ondorengo faktura jaso du:

ROPA CÁLIDA		FAKTURA Faktura zenbakia: 2034 Jaulkipen data: otsailak 28		
Sara Jimenez Limonero 29 La navata 56092 Zedland				
PRODUKTU KODEA	DESKRIBAPENA	KANTITATEA	PREZIO (unit)	TOTALA
T011	Kamiseta	3	20	60 zed
J023	Bakeroak	1	60	60 zed
S002	Bufanda	1	10	10 zed
Totala (Zerga aurretik):				130 zed
Zergak 10 %:				13 zed
Bidalketa gastu finkoa:				10 zed
Totala (Zerga ondoren):				153 zed
Ordaindutakoa:				0 zed

Sara Ropa Cálidak fakturan errore bat egin duela konturatu da. Sarak 2 kamiseta eskatu eta jaso zituen, ez 3.

GALDERA: zein da faktura zuzenaren zenbateko totala (zerga ondoren)?

4. Eranskina: WORLD BANK eta STANDARD&POOR´S: Hezkuntza Finantzarioa munduan zehar (2014)

a) "Hezkuntza Finantzarioa munduan zehar" ikerketako galdera sorta

- 1.** Suposatu diru kantitate bat duzula. Zer da seguruagoa, diru guztia enpresa edo inbertsio bakar batean inbertitzea ala dirua enpresa edo inbertsio ezberdinetan banatzea?
 - a) Dirua enpresa edo inbertsio bakar batean inbertitzea.
 - b) Dirua enpresa edo inbertsio ezberdinetan banatzea.
 - c) Ez dakit.

- 2.** Suposatu hemendik 10 urtera erosten dituzun ondasunen prezioak bikoiztu egin direla. Zure diru sarrerak ere bikoiztu egin badira, zer erosi dezakezu?
 - a) Gaur erosi ditzakedan ondasunak baina gutxiago
 - b) Gaur erosi ditzakedan ondasunak berdina
 - c) Gaur erosi ditzakedan ondasunak baina gehiago
 - d) Ez dakit

- 3.** Suposatu 100 €ko mailegua behar duzula. Mailegua itzultzeko bankuak bi aukera ematen dizkizu. Zein aukera da onuragarriagoa zuretzat?
 - a) 105 €
 - b) 100 € + %3ko interes tasa
 - c) Ez dakit

- 4.** Suposatu bankuan diru kantitate bat uzten duzula bi urterako. Bankuarekin urteroko %15eko interes tasa hitzartzen duzu. Zenbat diru ingresatuko dizu bankuak bigarren urtean?
 - a) Lehenengo urtean baina gehiago
 - b) Lehenengo urteko diru kantitate berdina
 - c) Ez dakit